


BIKAIN TASUNETIK BERRIKUNTZARA

PLAN ESTRATEGIKOA
2008




Osakidetza



1	SARRERA	3
1.1	2008-2012 Plan Estrategikoaren lanketaren helburuak	6
1.2	2008-2012rako Estrategiaren orientazio orokorra	7
2	2008-2012-RAKO ESTRATEGIAREN INGURUA.	10
2.1	2003-2007 aldia	12
2.2	Datozen urteetarako jarduera agertokia	17
3	2008-2012-RAKO ESTRATEGIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA	23
3.1	Misioa, Ikuspena eta Balioak	26
3.2	2008-2012 aldirako erronka Estrategikoak	29
3.3	2008-2012rako euskal gizartearekin hartutako konpromisoak	31
3.4	Jarduera eremuak	33
4	ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK	35
4.1	EP: Erabiltzailea/Pazientea	38
4.2	OP: Osakidetzako Pertsonak	45
4.3	AE: Asistentzia Eredua	54
4.4	ANE: Antolaketa Eredua	60
4.5	TA: Teknologia eta Azpiegiturak	69
4.6	II: Ikerketa eta Irakaskuntza	74
5	JARRAIPEN ETA KONTROL ADIERAZLEAK	80
I. ERANSKINA. LEGE ESPARRUA	83

Sarrera





Osakidetzaren 2008-2012 Plan Estrategikoak ezartzen du **Erakundearen plangintza estrategikoa datozen bost urteetarako**, izan ere, abiarazi beharreko estrategiak eta jarduerak biltzen dituen bide orria da.

2008-2012 Plan Estrategikoak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hiritarrak eta haien osasuna Osakidetzako jarduera zentroarekin identifikatzen ditu eta, berriro ere, Osakidetzako Pertsonak proposatutako aldaketen protagonista egiten ditu, neurtzeko moduko helburuak eta jarduera egingarriak planteatuz.

Osakidetzak, aurreko plan estrategikoak garatu eta inplementatuz, **Erabateko Kalitatera** zuzendutako eredu baten aldeko apustua egin duen osasun erakundea da, **bikaintasuna** lortzeko helburua duena. Gestioa hobetzeko prozesuarekin eta bikaintasunaren aldeko apustuarekin jarraituz, Osakidetzak erabaki du hausnarketa sakon bat egitea, etorkizunean, Erakunde gisan eta Zerbitzu Erakunde gisan garatzeko gai estrategikoak landuz.

Hausnarketa horren emaitza da, hain zuzen ere, Osakidetzak landutako Plan Estrategiko hau, 2008tik 2012ra bitarteko aldia hartzen duena. Estrategia honen esparrua osatzen dute, beste aspektu batzuen artean, azken aldi estrategikoan euskal sanitatean eragin duten aldagaietan izandako aldaketek eta giltzarri diren gaiei erantzun berriak emateko beharrak, Europan erreferentziazko lekuetan egoteko. Azken batean, kontua da, **“bikaintasunetik berrikuntzara igarotzea”**, **Erakundearen iraunkortasuna ziurtatuz**.

2008-2012 Plan Estrategikoa, Osakidetzako errealitatea osatzen duten guztientzat, **konpromisozko gida** bat da, lorpen berriak eskuratzeko orientabide bat, beti ere **Erabiltzaileak/Pazienteak** kontuan hartuz, haien beharretara egokituko den eta **teknologia, gestio eta gizarte alorretako aurrerapenekin eta berrikuntzekin** bat etorriko den **zerbitzu eraginkorra** eskaintzeko.



1.1 2008-2012 Plan Estrategikoaren lanketaren helburuak


2008-2012 Plan Estrategikoaren helburua da datozen bost urteetan **Osakidetzako Pertsona guztiarentzako erreferentziarako dokumentua** izatea, bai ohiko jardunean bai etorkizunean Erakundea eta haren eredia berrikusteko.

Helburu orokor hori operatiboagoak diren helburu eta lorpenetan gauzatzen da:

- Etorkizuneko gai giltzarriak identifikatu eta horietaz jabetzea, Osakidetzaren arrakasta baldintzatuko baitute, efikaziari, efizientziari eta kalitateari dagokienez.
- Giltzarritzat jotzen diren ardatzetan jarraitu beharreko politika eta estrategiak ezartzea.
- Politika horiek epe ertain eta luzerako helburu bihurtzea, Osakidetzako jarduera adierazleak bilduko dituen eta Zerbitzu Erakundeak orientatzeko balio izango duen oinarrizko aginte koadro bat ezarriz.

2008-2012 Plan Estrategikoaren lanketaren asmoa da **Korporazio Misioan hartutako konpromisoa indartu eta azpimarratzea, erakunde gisan etorkizunerako Ikuspena birdefinitzea**, horren lorpena babestuz eta zerbitzu sanitarioaren jarduera Erakundearen portaera **Balioen arabera** orientatuz. Kalitatea, gainera, ziurtapenetik eta sistematizaziotik harago doan bikaintasun helburu gisan ulertzen dugu. Horretaz gain, 2008-2012 Plan estrategikoak **“bikaintasunetik berrikuntzara” joan nahi du, Osakidetzako asistentzia, antolamendu eta gestio ereduaren berrikuspenera bideratuz, berrikuntza zentzu zabalean ahalbidetuz eta Erakundearen iraunkortasuna ziurtatuz.**

Estrategiak 2008-2012 aldirako jarduera eremua ezartzen du. Apustu korporatibo honek zehazten du, gainera, Zerbitzuen Erakunde bakoitzak zein oinarriren gainean zehaztuko eta garatuko dituen bere estrategia espezifikoak, dokumentu honetan definitutako estrategia orokorrekin lerrokatutakoak.



1.2 2008-2012rako Estrategiaren orientazio orokorra

Osakidetzaren erronka nagusia 2008-2012 aldirako, EAEko hiritarrei **zerbitzu sanitario eraginkor, kalitateko eta iraunkorra** bermatzen jarraitzea da, Erakundearen etorkizuneko iraupenerako oinarriak jartzeaz gainera, egungo ereduak berrikusiz.


Erronka hori lortzeko, jarduera eremuko beharrei erantzunez, Osakidetzak etorkizuneko agertokiak aurreikusteko gai izaten jarraituko du, horietara egokitu eta bere helburuak lortzeko. Osakidetzak **proaktiboa** izango da bere politiken diseinu, inplementazio, ebaluazio eta **berregituratzean**. Orientazio nagusietako bat, beraz, berrikuntzaren aldeko apustua da, soluzio berriak sortzeko prozesua den aldetik, hala gestioan nola pazientearentzako atentzioan, Erakundearen eta bertako Pertsonen **ezagutza** aplikatuz.

Interes taldeen behar eta espektatibak kontuan izanik, eta baita datozen urteetarako aurreikusten diren sanitareko faktore eta errealitate baldintzatzaileak ere, Osakidetzak gai izango da **Sistemaren iraunkortasuna** ziurtatuko duen oreka bat lortzeko, bai **etengabeko berrikuntza** bai **teknologiaren aldeko apustua**, etengabeko aurrerapena ahalbidetuko duten motor traktoretzat hartuz. Horrek **Osakidetzako pertsona guztien parte hartzea** eskatzen du, horiek baitira euren zereginetan benetako adituak eta jakitunak, berrikuntza prozesuak berrasmatu eta eragiteko kapazak, asistentzia eta gestio ereduak etorkizuneko eskaerara egokitzeko. Bokazio proaktibo hori **interes taldeetara** orientatuko da, izan ere, Osakidetzak interes talde horien behar eta espektatibei erantzuten die; horra hor:

- Asistentzia sanitarioa jasotzen duten erabiltzaileak - Pazienteak
- Osakidetzako Pertsonak, asistentzia hori eskaintzen duten profesionalak
- Euskadiko Administrazioa, euskal gizartearen ordezkari gisan, eta Osasun Saila espezifikoki, osasun politiken zuzendaritza dagokion aldetik
- Sare sozio-ekonomikoa, Osakidetzak inpaktu positiboa baitu enpresa jardueran, ekonomian eta lan gaietan; eta baita Berrikuntzaren Euskal Agentzia ere, EAEn berrikuntza soziala eta gestioa sustatzen duen aldetik

- Erakundea bera, gainerako interes taldeen espektatibak betetzeko, bere behar propioei erantzun behar die eta


2008-2012rako Estrategia honek Sistemaren iraunkortasunerako oinarriak jarriko ditu, behar diren profesionalekin, teknologia eta azpiegitura egokiekin, informazio sistemekin eta gizartearen premia aldakorrekin bat etorri diseinatu beharko den asistentzia eredu batekin.



2008-2012rako Estrategiaren ingurua



Osakidetzaren 2008-2012rako Estrategiaren abiapuntua dago Erakundearen jardueran bertan, aurreko estrategietan egindako aurreikuspenetan eta Eusko Jaurlaritzaren politika sanitarioan eta gai horri buruz egindako plangintzan. Era berean, demografiaren eta immigrazioaren bilakaera aurreikuspenak direla-eta, patologia berrien aldakuntza eta agerpena dela-eta, eta gai horien konbinazioa dela-eta, Osakidetzak eraginkortasun kliniko handienarekin eta asistentziaren kalitatearekin erantzun beharko dio geroan sortuko den eskaera/eskaintzari. Azkenik, aurrerapen teknologikoez eta aldaketa perspektibek, berrikuntzari dagokionez, asistentzia eta antolamenduzko paradigmak etengabe eguneratu beharra dakarte.



2.1 2003-2007 aldia

Azken bost urteetan, Osakidetzak lorpen garrantzitsuak izan ditu eta, aldi berean, 2008-2012o Plan Estrategiko honetan planteamendu berriak egitera behartzen duten premiak sortu dira. 2003-2007 Plan Estrategikoari buruzko hausnarketa eta aldi hori markatu duten jarduera esanguratsuenak kontuan hartuta, aurre egin beharreko erronketariko batzuen eta eutsi beharreko lorpen batzuen berri izango dugu.

Aurreko Plan Estrategikoaren ezaugarria izan da Osakidetzan giltzarri diren eremuetan erronka handiei ekin izana. Hona hemen eremuok: Erabiltzailea-Pazientea, Osakidetzako Pertsonak, Kalitate Edua, Enpresa eta Korporazio Garapena, Ikerketa eta Azpiegituretan egindako Inbertsioak.

1. Erabiltzaile-Pazientearentzako zerbitzua

Osakidetzarentzat, funtsezkoa da Erabiltzaile-Pazienteek ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea. Hori posible izan da aurreko aldian zehar landutako jarduera asko eta askori esker, hala nola:

- Pazientearen prozesuaren integrazioan egindako hobekuntzak, asistentzia mailen arteko erlazioa indartuz
- Atentzio espezializatuaren eta Lehen Mailako Atentzioaren arteko zereginen birbanaketan aurrerapenak: antikoagulazioaren kontrola eta erretinografoak, besteak beste
- Atentzio Ambulatorioaren egungo eredia birdiseinatzea (laneko bajak jaulkitzeko prozedurak berrikusi eta sinplifikatzea, medikazio kronikoa, errezeta bisatuak, eta abar)
- Lehen Mailako Eskaintzaren berrikuntza Lehen Mailako Atentzian
- Historia Kliniko Informatizatua (Osabide) arrakastaz ezarri izana Lehen Mailako Atentzian



Lehen Mailako Atentzian, lehenasunezko eskaintza hobetu egin zen 2005ean, bihotz-hodietako arriskua, minbizia, osasun mentala, diabetes mellitusa, arnas gaixotasun kronikoak, haurren kontrolak, istripuak eta zaharren arriskuekin lotutako prebentziozko eta asistentzia jarduerak sartu zirelako. Jarduera horiek, prozesuen estaldura eta kalitate baldintzei dagokienez, 2002-2010erako Osasun Planaren lehenasunezko helburuekin bat datoz. Gainera, aipatutako osasun arazoetan landu beharreko eta atentzio ona eskaintzeko ekintza eta irizpide sorta bat ere sartu da.

Testuinguru horretan, hona hemen prebentzio jardura esanguratsuenetako batzuk: PAPak, tabakoaren kontrako kontsultak, Aho bidezko Antikoagulazio Tratamentuak, Erreflexologia digital bidez, eta segurtasun nahiz Erabiltzaile-Pazienteari informazioa emateko sistemak. Horiek guztiek onura handiak ekarri dizkiete Erabiltzaile-Pazienteei.


Ohiko ospitaleratzearen alternatibei dagokienez, **etxeko ospitaleratzean** aurrera egin da, izan ere, %56,6ko hazkundera izan zen 2003 eta 2006 bitartean, eta 2006an 4.460 ospitaleratze izan ziren, Gurutzeta, Basurto, Donostia, Txagorritxu-Santiago eta Galdakaoko ospitaleetan zerbitzuak ezarri ondoren. 2007an ezarpena Mungialdera hedatu da (Gurutzetako ospitaleari dagokionez), baita San Eloy ospitalera ere. Paraleloki, jardura anbulatorioa indartu egin da, eredu poliklinikoei buruzko zentro espezializatu berriak sortuz, **Kirurgia Handi Anbulatorioko (KHA)** paziente kopurua handituz eta Kirurgia Handi Anbulatorioa gertakari kliniko berrietara hedatuz.

Erabiltzaile-Pazienteentzako atentzio sozio-sanitarioan aurrera egiteko, **atentzioa hobetzeko plan** bat landu eta bideratutako baliabideak koordinatu dira.

2. Pertsonen inplikazioa

Osakidetzak, **pertsonen gestioa** artikulatzeko, izaera estrategikoko hainbat jardura jarri du martxan, esaterako, lanpostu funtzionalei buruzko 186/2005 Dekretua, Funtzioen Eskuliburua edo Garapen Profesionaleko Eredua, besteak beste.

Lan Eskaintza Publiko handinahi bat deitu izanak, lan baldintzei buruzko akordioak onartu izanak eta profesionalen mugikortasuna handitu izanak (1.921 eskaera lekualdaketa lehiaketan eta 1.121



zerbitzu eginkizunetan onartuak); horrek guztiak alde zurretik ezarritako helburuei garrantzi handiko erantzuna eman die.

Aitorpen sistema garapen profesionaleko planean oinarrituta antolatu da, bai fakultatiboen artean bai erizaintzan, eta horretarako zera baloratu da: helburuen lorpena, etengabeko prestakuntza, lanbide eremu, ikerketa eta irakaskuntza jarduerak, eta Erakunde balioko eta helburuetan eta zerbitzu erakundeetan pertsonen duten inplikazioa.


Asistentziaren eremuan eta Giza Baliabideenean ezarritako garapen ereduari dagokionez, hurrengo aldi estrategikorako lortu beharreko erronkatzat jotzen da profesionalen hazteko itxaropenei erantzutea, zerbitzu erakundeetako pertsonen gestioa are integralagoa eskatzu.

Era berean, lehenetsuneko hobetzeko alorren artean, kontuan hartu behar dira pertsonen Erakundearen duten inplikazioa, Osakidetzako eta bere zentroko helburuekin duten identifikazioa, eta baita gatazkak gutxitzea eta komunikazioa hobetzea ere.

3. Erabateko Kalitatea.

Beste aspektu garrantzitsu bat Erabateko Kalitatearen aldeko apustua izan da, asistentziaren eta gestioaren alor guztietan. Erakundeak bere egin dituen **EFQM** gestio eredu eta horko printzipioak, eta horrek inguruko erakunde sanitarioen buruan jarri du kalitateari dagokionez. Horrek zera ekarri du:

- Erakundeen ~%75ek autoebaluazioak barneratu izana
- Urteko gestio planak ezarri izana
- Erakundeen %60k READER analisia sartu izana, gestioan hobera egiteko eta Eusko Jaurlaritzaren kalitatearen gaineko kanpo aitorpenak izateko bide gisan (16 erakunderi Zilarrezko Q-a eman diete eta Urrezko Q-a beste 5i, 248 ISO ziurtapen eta hainbat sari).
- Zerbitzu Erakundeen barruan kalitatearen funtzioa ezarri izana.



- Erakundeen ~%66k prozesukako gestio sistema bat ezarri izana.

Etorkizunerako beharrezkoa da filosofia zabaltzea, hau da, kalitate ereduaren praktika erakundeetako maila guztietara eramatea.

Asistentziaren alorrean, zerbitzu kalitatea ebaluatzeko sistemak indartu egin dira urteko gestio planetan hobekuntza planak sartuz eta erabiltzaile-pazientearen gogobetetze inkestak zabalduz. Halaber, Aginte Koadro Zentralizatua lantzeko prozesuak gauzatu dira, eta praktika onen proiektua abian jarri (Praktika On Korporatiboak).

4. Enpresa eta gestio garapena.

Aldi honetan Osakidetza heldutasunera iritsi da Erakunde gisan, eta **plangintza estrategiko eta operatiboa** sendotu du asistentziagatiko prestazio eraginkor baten oinarri gisan. **Antolamendu eredurako**, plan estrategikoak eta gestio planak oinarritzko tresna modura sendotu dira (Osakidetzako Zerbitzu Erakunde guztiek plan estrategikoa eta aginte koadro integrala daukate; zerbitzu erakundeen %100ek eta unitateen eta zerbitzuen %50ek urteko Gestio Plana daukate).


Gestio Klinikoan, 7 eskualde sanitarioetako lehen mailako atentzioko 102 unitatek gestio klinikoko kontratuen erregimen pean funtzionatu dute 2005ean. Atentzio espezializatuan, azken urteetan hainbat esperientzia egin da Basurto (Psikiatria, Anatomia Patologikoa, infekzio gaixotasunak eta Etxeko Ospitaleratzea), Donostia (Laborategi Bateratua), Galdakao (Pneumologia, Urologia-Litotrizia, Eguneko Ospitale Kirurgikoa), Santiago (Psikiatria) eta Txagorritxuko (Kardiologia eta Zaintza Kritikoak eta Laborategia) ospitaleetako unitateetan.

5. I+G+b

I+G+b kudeatzeko Fundazioa (BIOef) Osasun Sailak sortu zuen, 2002an, eta fundazio horren jarduerak zera ekarri du: gero eta ikerketa proiektu gehiago landu ahal izatea eta ikertzaileentzako kontratuak, ikerketarako ekipamendu handiak eskuratzeko inbertsioak eta erlazio sare bat ezarri ahal izatea erakunde eta ikerketa talde berriekin lankidetzak akordioak sinatuz. Itunen alorrean, Osasun-Unibertsitate-Enpresa arteko partaidetza proiektuek gora egin dute progresiboki. Fundazioak finantziazio iturri berriak ireki ditu, publiko nahiz pribatuak, Osakidetzako ikertzaile taldeentzat.

Jarduera horiek guztiek emandako zenbakiek eta datu ekonomikoek erakusten dute azken 5 urteetan zehar ikerketan biziberritze eta hazkunde nabarmena izan dela gure erakunde sanitarioan. Indarberritze hori, batez ere, Osakidetzako profesionalen gaitasunari zor zaio, baina baita Herri Administrazioek I+Gn egindako inbertsioen hazkunde nabariari ere, eta azkenik, B+I+O Fundazioak aukera hori gure Sistema sanitarioan integratzeko izan duen gaitasunari.

Etorkizunerako erronkak bi ataletan zentratuta daude: gestioari dagokionez, Erakundearen ikerketa egitura sendotuko duten neurri berriak hartzean, bideragarritasuna eta etengabeko hobekuntza bultzatzeko; ikuspegi zientifikotik, erronkarik inportanteena aplikagarritasunarena izango da: berrikuntzaren bidez, sistemak bertako eta inoren ikerketa lanen emaitzak jasotzea eta erabiltzea. Erronka biok asumitzearen helburua da irakaskuntza eta prestakuntzarekin kolaboratzea, Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzu sanitarioak eduki zientifikoz hornitzeko. Helburua lortzearen ondorioa ere bikoitza da: biztanleen osasuna hobetzeko zerbitzu sanitarioetan berrikuntza sustatzea eta herrialdeko eragile zientifiko-teknologikoekin kolaboratzea, aberastasuna eta ongizate soziala sortzen laguntzeko.



2.2 Datozen urteetarako jarduera agertokia

Osakidetzak errealitate konplexu batean eskaintzen ditu bere zerbitzuak. Errealitate hori Erakundeko jarduera eremuetan eragiten duten faktoreek baldintzatzen dute eta erabakigarria da etorkizunerako estrategiak zehazteko orduan.


Osakidetzaren jarduera ingurua honako alorretan bana daiteke:


- Demografia eta Gizartea
- Profesionalak, zerbitzu sanitarioen hornitzaileak
- Teknologia
- Hornitzaileak, ekipamendu teknologikoak eta farmazi industria
- Lege esparrua
- Politika Sanitarioa

2.2.1 Demografia eta Gizartea

Osakidetzaren lana gizarteari zuzenduta dago eta gizarte hori etengabe ari da aldatzen. Biztanleriaren osaera demografiko eta soziologikoa, Osakidetzaren plangintza eta zerbitzu prestazioen alorretan eragiten duten aldagaiak dira. Hauxe da faktore nagusiei dagokienez espero den bilakaera:

- **Bilakaera demografikoa:** laurogeita hamarreko hamarkada jaiotza tasaren geldialdiak eta hilkortasun tasa gordin baxuak ezaugarritu bazuten ere, mende honetako lehen hamarkada joera hori hausten ari da Eustatek emandako datuen arabera. Joera horiek zuzenean eragingo dute balio negatiboetatik abiatuz hazkunde begetatiboa berreskuratzeko. Bestalde, migrazio saldoa positiboa da eta 2008-2012 aldirako Plan Estrategikoaren joera goranzkoa da.





- **Biztanleen gaixotasunen bilakaera eta aje motak:** EAeko biztanleria zahartzen ari da eta horrek ekarri du gaixotasun kronikoek gora egitea eta pluripatologiak zein patologia konplexuagoak agertzea.

Migrazioen eraginez, ikuspegi sanitariotik, gaixotasun edo patologia berriak azaldu dira, horietako batzuk gure ingurunean desagertuta zeudenak.

Horiek hala, Osakidetzak koordinazio prozesuak landu beharko ditu eragile soziosanitarioekin eta gaixotasun berriak hobeto zaindu beharko dira.

- **Eskaeraren ezaugarrien bilakaera:** prestazio sanitarioaren erabilpena, bere modalitate guztietan, zerk ezaugarritzen duen ulertzeko, kontuan hartu behar da, alde batetik, zerbitzuen eskaera kopurua gorantz doala -bai kantitateari bai kalitateari dagokionez- eta biztanleak gero eta prestatuago eta informatuago daudela, maila ekonomiko zein kultural handiagoa izateaz gainera.

- Lehen Mailako Atentzioa hazten ari da mailaz maila medikuntza orokorreko kontsultetan eta pediatrian, eta horrek erronka planteatzen die zerbitzu sanitarioei, biztanleak ahalik eta kalitate eta estaldura handienarekin zaintzeko.

- Atentzio espezializatuaren eskaera, bai anbulatorioa bai ospitaleratuei eman beharrekoa, handitu

egin da azken urteotan, batez ere kontsultak eta ebakuntzak. Hazkunde horiek modu proportzionalen eragin dute diagnostiko nahiz kontrolerako zerbitzu osagarrien eskaeran. Datozen urteetan ere tamaina berean igoaz joatea espero da.

- Premiazko Atentzioan hazkunde jarraikia izan da, biztanleek, zerbitzura jotzen duten unetik, asistentzia azkar eta osoa jasotzeko hartu duten joeraren ondorioz.
- Atentzio psikiatrikoa gazteen artean ari da nabarmentzen, droga kontsumoa dela eta -eta bereziki aipatu behar dira diseinuzko drogak-. Nerabeak heldutakoan ere, joera horrek hortxe jarraituko duela uste da.
- Prebentzio zerbitzuen eskaera, nagusiki txertatzeak eta hautemate espezifikoak, biziagotzen ari dira osasun arazo larriak edo baliagabetasunak izateko arriskuak detektatzeko metodo eta produktu berriei esker.

2.2.2 Profesionalak, zerbitzu sanitarioen hornitzaileak

Profesional sanitarioak giltzarri dira, Erabiltzaile-Pazienteek eskatutako prestazio sanitarioak emateko arduradunak diren aldetik. Haien egungo eta geroko errealitatea honela azal daiteke:

- Lanerako profesionalen aukera txikia: hona hemen pertsona prestatuek espezialitate mediko jakin batzuetan eta erizaintzan zerbitzua emateko lanerako aukeren zergatiko nagusiak: plangintza unibertsarioa, portaera demografikoa, joera sozialetan izaten diren aldakuntzak prestakuntza aukeran eta aukera profesionalean eta osasun zerbitzu berri transferituen eskaera. Agertoki horien eraginez, espezialitate jakin batzuetan defizitak sortzen dira, eta hala, erronka bihurtzen da profesional sanitarioak erakartzea eta horiei eustea.
- Langileak zahartzea: Osakidetzako langileen batez besteko adina 45 urte inguruan dabil, eta fakultatiboena da kolektiborik zaharrena. 2010. urtera arte 1.700 pertsonak erretiroa hartzea espero da (egungo plantillaren %7,5). Hori dela eta, epe luzerako plangintza egin beharko da, eta baita hainbat politikatan oinarritutako txandakako gestioa ere.

2.2.3 Teknologia

Teknologia sanitarioan izandako aurrerapenak, bioteknologian izandakoak, gailuen etengabeko berrikuntza eta aski sofistikatuak diren teknika berrien agerpenak; horren guztiaren eraginez, teknologia giltzarri estrategikoa dugu Sistemaren lehiakortasunari eusteko eta, era berean, teknifikazio eredu iraunkor bati erantzuteko.

Bestalde, EAEk badu zentro teknologikoen eta bio-enpresek osaturiko sare sortu berri bat, beste materia batzuen artean biomedikuntzarekin lotutako alor teknologikoetan aplikatzeko ikerketa bultzatzen eta lantzen dihardutenak.

Hori hala, Osakidetzak tokiko eta nazioarteko ikerketa eta berrikuntza sarean egon behar du, zerbitzuak modernizatzeko aurrerapen berriak identifikatu, aztertu eta bereganatzeko, beti ere biztanleen osasuna babestea helburu.

2.2.4 Hornitzaileak, ekipamendu teknologikoak eta farmazia industria


Hornitzaileak interes talde inportanteak osatzen dituzte eta modu esanguratsuan eragiten dute jarduera, efikazia eta efizientzia sanitarioan. Etorkizuneko agertokian izango duten eraginari dagokionez, hona hemen nabarmendu beharreko aspektuak:

- **Ekipamendu sanitarioen hornitzaileek negoziatzeko duten ahalmenaren handitzea:** Ekipamendu sanitarioen hornitzaileek, aldaketa teknologikoen abiadura dela-eta, kokaleku indartsua hartu dute merkatuan; hala, zenbait kasutan hornitzaile eksklusibo bihurtu dira. Egoera horren aurrean, Osakidetzak erosketen gestiorako sistema estrategikoetan aurrera egin beharko du, hornitzaileekin itun teknologiko zehatzen bila, eta akordio ekonomiko eta logistikoen bila.
- **Farmazi konpainiekiko mendekotasun handia:** farmazia konpainiek gero eta presio handiagoa egiten diete sistema sanitarioei, fakultatiboei eta pazienteei produktuak saltzeko, gorantz doan mendekotasun egoera batetik abiatuta. Biztanleen artean dagoen osasun produktuak eta bereziki botikak kontsumitzeko kultura berriak eragin zuzen eta handia du aurrekontu sanitarioaren gastuan, efizientzia handiagoko beste alor batzuen kaltetan. Errealitate horrek eskatuko du, batetik, biztanleria kontsumo arrazional eta arduratsuan hezte, eta bestetik, preskripzio gastuari eusteko neurriak hartzea.

2.2.5 Lege Esparrua

Osasunaren inguruan onartutako legeriak estatuko eta autonomiako arautegiari jarraitzen dio. 2008-2012 Plan Estrategiko berriak kontuan hartzen du legeek, dekretuek eta aginduek Osakidetzan duten eragin zuzena, izan ere, lege, dekretu eta agindu horiek definitzen dituzte Osakidetzaren esparrua, izaera, jarduteko modua eta Erabiltzaile-Pazienteekiko eta Erakundeko Pertsonetikiko erlazioak.

Azken 30 urteotan, legeak ezarri duen bidea, bide egokiena da EAEko hiritarren ongizaterako behar diren osasun zerbitzuak eskainiko dituen erakundea osatzeko, hiritarren eskubideen errespetua bermatuz, Euskadiraiko Autonomia Estatuak onartutako 3/1979 [1] Lege Organikoari esker. Eusko Legebiltzarrak onartutako 10/1983 [2] Legeak eta 14/1986 Sanitateko Lege Orokorrak, berriz, egun EAEn ezagutzen dugun osasun sistemaren zimenduak jarri zituzten.



Premia aldakorrak eta egin beharreko egokitzapenak direla eta, arautegi berriak ezarri dira, hala nola Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legea eta estatuko Kohesio eta Kalitateari buruzko 16/2003 [19] Legea. Biomedikuntza eta antzeko errealitate berriak Biomedikuntza Ikerketari buruzko 14/2007 [33] Legeak arautzen ditu, izan ere, lege horretan ezartzen dira biomedikuntza ikerketa bultzatu eta estaldura juridikoa eta garatzeko esparrua ematen duten oinarri juridikoak.

2.2.6 Politika Sanitaria

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak landutako Osasun Planak, EAEko osasun alorrean planteatzen diren erronka ugari aurre egiteko garatu dira, eta baita Sistema Sanitarioaren eta parte hartzen duten eragileen politiken norabidea markatzeko ere. EAEko **2002-2010erako Osasun Plana**, Osakidetzaren estrategiak ezartzeko esparru generikoa da. 2002-2010erako Osasun Planak zuzentzen duen helburu nagusia -eta politika publikoek eta Osakidetzak harantz lerratu beharko lukete- biztanleen osasuna hobetzea da, bizi itxaropena eta bizi osasungarriko urte kopurua handituz.


Plangintza espezifikoki dagokionez, aipagarria da **“Osasuna eta Emakumea” programa**, zeinak, besteak beste, minbiziaren detekzio goiztiarra hobetzearen aldeko apustua egiten duen, utero lepoko, koloneko eta titietako minbizietan baheketa jarduerak indartuz; egutegi arruntean VPHari aurre egiteko txertoa biltzen du; genero ikuspegia sustatzen du Praktika Klinikoko Gidetan; eta erditzeari dagokionez, amaren ongizatea azpimarratzen du. Beste programa edo plan espezifikoki batzuek **Bihotz eta Arnas Errehabilitazioari** egiten diote erreferentzia, errehabilitazio neurologikoa ere optimizatuz, eta baita **Atentzio Soziosanitario eta Soziopsikiatrikoari** ere, gai horretan, esaterako, Osasun Sailak zehaztutako koordinazio eta lankidetzak jarduerari laguntzeko.

Osasun Sailak datozen urteetarako bultzatutako inbertsio planak 2007-2012 aldirako **Euskal Sistema Sanitarioaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Planean** daude zehaztuta eta bertan aztertzen dira Osakidetzak etorkizuneko asistentzia eskaerari estaldura emateko aurre egin beharreko azpiegitura eta ekipamendu premiak, gaur egunera arte lortutako kalitate mailari ertsiz edo horiek hobetuz.

Modu osagarrian, eta politika sanitariori hertsiki lotuta ez badago ere, Eusko Jaurlaritzak 2007ko uztailan onartutako **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak** -Berrikuntzaren Euskal Agentziak (Innobasque) bultzatua- European EAE erreferentziazko zientzia eta teknologia gune bihurtzeko ildo nagusiak zehazten ditu. Osakidetzak, garapen zientifiko eta teknologian eragile garrantzitsua den aldetik, modu aktiboan parte hartzeko konpromisoa hartu du.




2008-2012rako Estrategiaren Kontzeptualizazioa



2008-2012rako esparru estrategikoa, misio **korporatibo** batek markatua dator. Misio hori kalitateko asistentzia zerbitzu sanitarioak ematearekin lotua dago, Erabiltzaile-Pazienteari eskaini beharreko atentzian arduatuta.

Bai **ikuspenak**, European **erreferentziako erakunde gisan**, bai **jarduteko balioek** eta portaera korporatibo zein profesionalak, Erakundearen etorkizun arrakastatsua aldeko apustu sendoa osatzen dute.

2008-2012rako Estrategiaren indarreko eperako **erronka espezifikoek**, eta baita jarduteko alor nagusi bakoitzeko **ildo estrategikoek** (bai asistentzia mailan bai ez-asistentzia mailan), Osakidetzaaren apustu estrategikoak ezartzen dituzte 2012rako agertokiari begira.



3.1 Misioa, Ikuspena eta Balioak

Misio Korporatiboa

Osakidetzaren misioa, Euskadiko Sistema Sanitarioan funtsezko parte izaki, bertako herritarrei zerbitzu sanitario publikoak ematea da, herritarron osasun beharrienei erantzuteko, ekitate, efizientzia eta kalitate printzipioei jarraiki, osasuna sustatu, prebenitu, zaindu eta hobetzeko jarduerak garatuz.

Hona hemen Misio horren premisak:

- Sistemaren ardatza Erabiltzaile-Pazientea da eta haren inguruan antolatzen da Osakidetzaren asistentzia jarduera osoa
- Osakidetzako Pertsonen garapena funtsezko balioetako bat da Erakundearen helburuak betetzeko.
- Berrikuntza eta Ikerketa etengabeko aldaketetara egokitzeko motorrak dira. Horien barruan sartzen dira teknologia, antolamendua, gestioa eta prozesuak.
- Ezagutza modu aktiboan gestionatzen da eta Zerbitzu Erakundearen eta Osakidetzako Pertsonen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren bidez egituratua dago.
- Osakidetzeko Gestio Sistema da, eta izan behar da, eraginkorra, parte hartzailea, koordinatua, malgua inguru eta jarduera aldaketetara egokitzeko modukoa, eta etengabeko hobekuntzara eta bikaintasunera bideratua.

Misioarekin zera lortu nahi da:

- Erabiltzaile-Pazienteen gogobetetzea.
- Garapen pertsonal eta profesionala, parte hartzea, eta Osakidetzako Pertsonen gogobetetzea.
- Helburuak baliabideen gestio eraginkorraren bidez lortzea.



- Erreferentziazko komunitatearen garapenari ekarpena egitea, Erakundearen eta bertako egiteko moduen iraunkortasunaren bidez eskaera aldaketei eta Osakidetzako Pertsonen aldaketei aurrea hartuz.

Ikuspen Korporatiboa

Osakidetzak erakunde proaktiboa eta berritzailea izan nahi du, Europan erreferente izango dena, une oro herritarrei ahalik eta osasun zerbitzu publikorik onena eskaini nahi diena.


Ikuspen hori kontuan hartuta, Osakidetzak honela egon behar du:

- Asistentzia sistemaren antolamendu eta egituraketan zentratu, kontuan izanik Erabilgaitzaile-Pazientea dela Sistemaren erdigunea.
- Dagoen errealitateari adi egon behar du, inguruko aukerak ekartzen dituzten garapen aukerak aprobetxatzeko eta mehatxuei arrakastaz aurre egiteko. Horretarako, Europako ezagutza eta garapen sareetan egon behar du.
- Kalitateak, efizientziak eta eraginkortasunak ezaugarritutako Sistemaren iraunkortasuna lortzeko, modu aktiboan kontzientziaturik egon behar du.
- Berrikuntza (soziala, antolamenduzkoa eta teknologikoa) bereganatzeko prest egon behar du beti, Erakundea eraginkorra izan dadin eta emaitza onak lor ditzan.
- Euskal osasun sistemako eragileen artean integraturik, identitate propioa eta harmonikoarekin.

Osakidetzak, "bikaintasunetik berrikuntzara" eginez, herritarrek gogokoen duten osasun zerbitzua izan gura du.

Balio Korporatiboak

Osakidetzak bere misioari eta etorkizunerako proiektuari erantzuten dion balio sistema bat artikulatzen du. Balio multzo horrek Erakundeko pertsonen portaera ezaugarritzen duten berezitasun kulturalak



eta bai barrurantz bai kanporantz Osakidetzaren identitate ezaugarriak biltzen ditu.

Erabiltzaileari zuzendutako orientazioa, Erabiltzaile-Pazienteen espektatibei bikaintasunez erantzuteko

- **Tratu pertsonalizatua eta kalitatekoa**
- **Informazio egokia garaiz ematea**, Erabiltzaile-Pazientearen beharren arabera
- Zerbitzuak ematean, **testuinguru sozio-linguistiko eta kulturala errespetatzea**
- Erabiltzaile-Paziente bakoitzaren **errealitate pertsonala errespetatzea**

Osakidetzako Pertsonen Garapena, hala alor profesionalean nola familiarrean nahiz pertsonalean

- **Profesionaltasuna, eraginkortasuna eta kalitatea**: jardunean, diagnostikoan eta tratamenduan arduratsua izatea, eta ezagutzak etengabe eguneratzea
- **Helburuekin identifikatu, konpromisoa hartu eta modu aktiboan parte hartu**: lortutako helburuetan, lan planifikatuan eta talde lanean, eta kontrol zein jarraipenerako mekanismoak garatzean ardurak hartzea
- **Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza** inguruko behar eta eskaerei erantzuteko, soluzio ebolutibo, jarrera proaktibo eta ekimenaren bitartez.
- **Osakidetzako Pertsona bakoitzaren lidergoa**, nork bere funtzioetan eta mailan inplikatu eta ardurak hartuz, dagokion taldean eta Erakundearen
- **Laneko bizitza eta bizitza pribatua uztartzea**, Osakidetzako Pertsonen garapen pertsonal globalaren esparrua erakundea izan dadin.

Emitzei eta eraginkortasunari zuzendutako orientazioa, eta eskuragarri diren baliabideak modu arrazionalen erabiltzea

- Kalitateko asistentzian, mugagabeak ez diren baliabide publikoak erabiltzen direla jabetuta egotea

3.2 2008-2012 aldirako Erronka Estrategikoak

Osakidetzak, 2008-2012 aldi estrategoari begira, lau erronka handi bereganatu ditu, **Erabiltzaile-Pazienteekin, Osakidetzako Pertsonekin, Berrikuntzarekin** eta **Iraunkortasunarekin** zerikusia dutenak. Erronka horiek, inguruko aukera eta mehatxuetatik eratorzen dira nagusiki, eta 2008-2012rako Estrategiaren elementu traktoreak dira, laguntzako Informazio eta Teknologia Sistemen aldeko apustuarekin batera.

Osakidetzak, ematen duen zerbitzu sanitarioaren kalitateari eustearen alde egiten du, hala demografiarekin nola osasunarekin loturiko errealitate aldakorretara egokituz. Horretarako, zerbitzua emateko pertsonarik onenak eduki gura ditu eta antolamendu eta teknologia mailan etengabeko berrikuntza du helburu. Etorbizunean, kontuan hartuz bilakaera demografikoa nolakoa den, eskaera gorantz doala eta zerbitzuaren etengabeko bilakaera inkrementala, Osakidetzaren asmoa da bateragarri egitea aurrerapenak eta Erakundearen eta bertako jardueraren iraunkortasuna.

Erabiltzaile-Pazienteen eta Gizartearen beharrei modu oso eta eraginkorrean erantzun

Erabiltzaile-Pazienteak Sistema Sanitarioan sarbidea izango dutela bermatzea, eta osasun premiak modu eraginkorrean artatu/konpontzea, bitarteko moderno eta erabakigarriekin.

Banakoen premiez gainera, demografía aldaketek eta migrazio fenomenoek, besteak beste, Osakidetzak bere zerbitzua eskaintzen dueneko inguru aldakor eta ebolutiboa markatzen dute. Patologia berrietara lerratzeke aurreikusten diren inertiak eta gero eta garrantzi handiagoa daukaten arazo kronikoei -bizi itzaropenaren luzapenak eraginak- Osakidetzak eman beharko die soluzioa.

Erakunde sanitario erakargarriena izatea Erabiltzaile-Pazienteentzat eta Osakidetzako Pertsonentzat

Osakidetzaren jarduera bakoitza garatzeko, pertsonarik onenak erakartzea, haien garapen pertsonal eta profesional osorako erakunde erakargarri bat sendotuz: prestakuntza, teknologia, informazio sistemak, ezagutzaren gestioa etab.


Merkatu irekian ez garela lehiatzen ari eta bezero gatibuak ditugula jakin arren, Osakidetzak EAEko herritarren lehentasunezko aukera eta aukera gogokoena izan nahi du, ematen duen zerbitzuaren kalitatea dela-eta, eskaintzen duen atentzioaren hurbiltasuna dela-eta, sistemaren erabakigarritasuna dela-eta, etab.

Berrikuntzaren kultura zabaltzea (soziala, antolamenduzkoa eta teknologikoa) eta kultura hori jarduera eremu osoan aplikatzea

Behar diren barne mekanismoak ezartzea, batetik, Osakidetzako Pertsonak euren sormena gara dezaten, eta bestetik, haien ekarpenak Erakunde barruan bideratzeko aukera izan dezaten, horretarako esparruak zehaztuz: berrikuntzaren kultura alor guztietan (ezagutza, teknikak, gestioa, teknologia) aldaketa prozesuak gauzatzeko baldintzak eskura edukiz.

Erakundearen iraunkortasuna bermatzea

Aurreikusitako jarduera hazkundearen, parte hartzen duten eragileen presioen eta zerbitzu sanitarioak ematearen arteko orekara iristea, beti ere etengabeko berrikuntza giroan. Erakundea modu eraginkorrean gestionatzea, eskuragarri dauden baliabideak modu arrazional eta arduratsuan erabiliz.



3.3 2008-2012rako euskal gizartearekin hartutako konpromisoak

Osakidetzak, Euskal Gizarteari zerbitzuak eskaintzeko Erakunde publikoa den aldetik, bere gain hartzen ditu 6 konpromiso publiko, erronka eta ildo estrategikoen osagarri direnak. 6 konpromiso horiek eskakizun espezifikoekin bat datoz eta are gehiago azpimarratzen dituzte Osakidetzaren jardueraren xehetasun konkrituak.

C1. Lehen Mailako atentzioa hobetzea, baliabideak beharretara egokituz

- Hobetzeko alorrak identifikatu eta Lehen Mailako Atentzioaren erabakigarritasuna areagotzea.

C2. Ebazpen denborak hobetzea: emaitza azkarragoak eta kalitatekoak


- Gehienez, 30 eguneko atzerapena lehen kontsultetan eta proba osagarriak egitea

C3. Interbentzio kirurgiko ez-premiazko edo programatuan gehienezko epea bermatzea

- Kirurgia onkologikoa: 30 egun natural
- Bihotz kirurgia: 90 egun natural
- Beste prozedura kirurgiko batzuk: 180 egun natural

C4. Ospitaleratze tradizionalaren alternatibak eta beste gestio modu batzuk bultzatzea

- Kirurgia Handi Anbulatorioa
- Eguneko Ospitale Medikoak
- Bereizmen Handiko Prozesuak
- Bereizmen Handiko Zentroak
- Etxeko Ospitaleratzea




C5. Osakidetzako plantillak sendotzea

- Lan Eskaintza Publikoa eta urteko Lekualdatze Lehiaketa

C6. Azpiegitura eta ekipamenduak modernizatu eta egokitzea

- 600 M€-ko inbertsioa 2012ra arte, Osasun Sailaren plangintzaren arabera



3.4 Jarduera eremuak

Osakidetzak 6 jarduera eremu nagusiren inguruan artikulatzen ditu 2008-2012 aldian jarraitu beharreko Ildo Estrategikoak. 6 eremu horietan biltzen dira ohiko jardunari loturiko askotariko aspektuak.

EP. Erabiltzaile-Pazientea

Elementu zentrala da, izan ere, hari zuzenduta dago Sistema Sanitarioa. Asistentzia zerbitzuak modu arin eta eraginkorrean ematen zaio, ingurune seguru batean, non Erabiltzaile-Pazientearen erantzukizuna sustatzen den.

OP. Osakidetzako Pertsonak

Erakundearen eta Erakundearekin inplikaturik dauden gizon eta emakume guztiak, bertan betetzen dutelarik euren zeregina. Osakidetzaren balio eta aktibo nagusia dira

AE. Asistentzia Eredua

Osakidetzak atentzio sanitarioko zerbitzuak eskaintzen dituen modua, hots, eskaera eta premia aldakorrei eraginkortasunez erantzuteko zerbitzu eskaintza baten bidez.

ANE. Antolaketa Eredua

Osakidetzaren antolamendua eta barne egitura, baliabideak modu malgu eta eraginkorrean koordinatu eta gestionatzean oinarritzen dena, Sistemaren errendimendu globala hobetzeko helburuaz.


TE. Teknologia eta Azpiegiturak

Ekipamendua (asistentziala eta ez-asistentziala), tresneria klinikoa eta informazio sistemak, horiekin gauzatzen baita Osakidetzaren egungo eta geroko jarduera; eta jarduera hori gertatzen deneko eraikuntzako elementuak.

II. Ikerketa eta Irakaskuntza

Ikerketaz ari garenean, erakundearen ezagutza sortzen duen metodologia zientifikoaren aplikazioaz ari garela ulertu behar da, artatzen diren gaixotasunen edo Erabiltzaile-Pazientearen eta Sistema Sanitarioaren premiak direla-eta egin beharreko aurrerapenei heltzeko.

Irakaskuntza da Osakidetzako Pertsonen eskainitako prestakuntza jarduera, pertsona horien edo graduatu aurreko zein graduatu osteko espezializazioan diharduten ikasleen onurarako.



Ildo estrategikoak eta helburuak



2008-2012 aldian landuko diren Ildo Estrategikoen bitartez eta horiei lotutako helburuen bitartez, Osakidetzak Euskal Gizartearekin hartutako konpromisoak bete nahi ditu, eta hala, Misio Korporatiboa ere bete, Erronka Estrategikoei erantzun eta Europan erreferente izan, Ikuspen Korporatiboa erdietsiz. Ildo Estrategikoak Osakidetzako Jarduera Eremuen banantzean identifikatu dira.



4.1 EP: Erabiltzaile-Pazientea

Erabiltzaile-Pazienteei dagokienez, Osakidetzaren asmoa da bere zerbitzuak herritar bakoitzaren errealitatera egokitzea, bai eskuragarritasun bai komunikazio bai tratuaeren aspektuei dagokienez. Erakundeak nahi du Sistema eskuragarri egotea, hala eraikinei nola harrera ordui dagokienez, bai teknologia berrien aplikazioaren bidez, bai zitazioari lotutako soluzio berritzaileen bidez, osasun arazo atzeraezinak dituzten Erabiltzaile-Pazienteei lehentasuna emateko.

Bestalde, Osakidetzak ahalegin gehigarria egin nahi du komunikazioan eta tratua pertsionalizatuan, Erabiltzaile-Pazienteen gogobetetze maila indartu eta herritarren ezagutza maila indartzeko, zerbitzuak modu egokian emateko, are erantzukidetasun mailan ere.

Ildo estrategikoak

EP.1 Erabiltzaile-Pazienteak sistema eskuragarri izatea

EP.2 Komunikazioa Erabiltzaile-Pazientearekin

EP.3 Tratua Erabiltzaile-Pazientearekin



EP.1 Erabiltzaile-Pazienteak sistema eskuragarri izatea

Erabiltzaile-Pazientea euskal osasun sistemaren erdi gunea eta elementu printzipala da. Sistema hori eskuragarri izatea jarduteko ardatz estrategikoa eta etengabeko hobekuntzaren helburu izango da. Hori dela eta, Osakidetza EAEko osasun sistemako Erabiltzaile-Paziente guztiek zerbitzu sanitarioak eskura izatea bermatuko du, osasun sistema modu irekian ulertuta: pazientea sisteman sartzea, sisteman sartzeko prozesua eta izapideak eta zentro nahiz zerbitzu erakundeen hurbiltasun fisikoa. Azken helburua hau da: erabiltzaile-pazientearen eta Osakidetzaren arteko interakzioa eta topaketa erraztea, eskuragarritasuna edozein egoera sozial, etnia edo eremu kulturali bermatuz, sistema sanitario publikoak gizartea kohesionatzeko duen betebeharra indartuz.

Testuiguru horretan, Osakidetza bereziki azpimarratu nahi du urritasun fisiko eta psikikoak dituzten kolektiboekiko tratua, euren egoera dela-eta zerbitzu sanitarioak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzte eta. Ildo horretan, azken helburua da kolektibo horiek berdintasuneko baldintzetan eskuratu ahal izatea zerbitzuak.

Bestalde, teknologia berriak (call center, zita elektronikoa, “Erabiltzailearen ataria” etab.) eta informazio sistema berriak edukitzea giltzarria da eskuragarritasuna errazteko. Gainera, horrek abangoardian jarriko du Osakidetzaren aurrerapen teknologikoen aplikazio praktikoan, Erabiltzaile-Pazientearen eta Osakidetzako Pertsonen arteko erlazioa erraztuz eta erlazio hori zuzenagoa eta eraginkorragoa bihurtuz.

Helburuak

- **EP.1.1 Sisteman sartzeko aukerak dibertsifikatzea, teknologia berriak Erabiltzaile-Pazientearen eta Osakidetzaren arteko erlazioan txertatuz**

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eskuratzek Erabiltzaile-Pazientea sisteman sartzeko aukerak handitzea dakar, eta horrek Erabiltzaile-Pazientearen eta Osakidetzako Pertsonen arteko erlazioa errazten du, erlazio hori zuzenagoa eta eraginkorragoa bihurtzen baita. Helburua ez da teknologia berriak metatzea, baizik eta Erabiltzaile-Pazienteari eskaintzen zaion asistentzia hobetzea, sarbidea erraztuz eta Osakidetzako Pertsonen lana arinduz, atentzio pertsonalizatua indartuz etab.

- **EP.1.2 Erabiltzaile-Pazientearen eta haren zentro eta zerbitzu erakundearen arteko interakzio sistemaren izapide eta prozesuak sinplifikatzea eta optimizatzea**

Prozesuak arindu eta izapide erredundanteak murrizteko helburuarekin, Osakidetzak nahi du interakzioa arindu, erlazioaren alde burokratiko eta administratiboa minimizatu eta esparru zuzen eta linealak ezarri, bai Erabiltzaile-Pazientearen eta Erakundearen arteko interakzioan bai Osakidetzako Pertsonen jardueran.

- **EP.1.3 Sistemaren lurralde eskuragarritasuna indartzea**


Osakidetzak nahi du zentroak Erabiltzaile-Pazienteengana gerturatzea 33 osasun zentro berri eraikiz (2007-2012 aldirako Euskal Sistema Sanitarioaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Plana). Era berean, Osakidetzarentzat lehentasunezkoa da biztanleen eta Osakidetzako Pertsonen bizi erritmoak atentzio ordutegiaren bateragarri egitea, Erabiltzaile-Pazienteek aukera gehiago izan dezaten behar dituzten zerbitzuak erabiltzeko.

- **EP.1.4 Urritasun fisikoak, psikikoak edo zentzumen urritasunak dituzten pertsonen eskuragarritasuna bermatzea**

Osakidetzak atentzio berezia jartzen du kolektibo horietan, sistemaren eskuragarritasun beharrei dagokienez, hala alderdi fisikotik (erakinetarako irisgarritasuna, seinaleak etab.) nola alderdi birtualetik (webguneen egokitzapena, esaterako).

- **UP.1.5 Arazo atzeraezinak dituzten Erabiltzaile-Pazienteentzako eskuragarritasuna bermatzea**

Osakidetzak bermatu nahi du atzeraezinako arazoak dituzten Erabiltzaile-Pazienteek ahalik eta arinen jaso ahal izatea dagokien asistentzia sanitarioa. Beraz, kontua da benetako premiak formula berrien bidez gestionatzea, esaterako, agendak, prozesu eta zitak jartzeko tresna berriak ezarrita gestionatzea.



EP.2 Komunikazioa Erabiltzaile-Pazientearekin

Informazioak eta Pazientearekiko komunikazioak asistentziaren funtsezko prozesua osatzen dute, sarritan zailtasunak dituen, bai komunikatu beharreko edukien konplexutasuna dela-eta bai Pazientearen errealitate pertsonal eta soziala dela eta.

Erabiltzaile-Pazienteei eta horien inguruari dagokienez, aldaketak gertatzen ari dira, hala nola beti egokiak ez diren informazioak erraz eskuratu ahal izatea edo Erabiltzaile-Pazienteek osasun produktu eta zerbitzuak kontsumitzera bultzatuak izatea. Hori dela eta, informazioak eta komunikazioak inportantzia berezia hartzen dute eta Profesionalek bestelako gaitasun batzuk bereganatzea eskatzen du.


Erakundeak, errealitate horien aurrean, Osakidetzako Pertsonak Erabiltzaile-Pazienteekin komunikazioa indartzearen aldeko apustua egiten du, Erabiltzaile-Pazienteari transmititutako informazioa hobetzeko helburuaz, asistentzia prozesu osoari eta eskuragarri dauden zerbitzu eta baliabide aukerei dagokienez.

Hala, Osakidetzaren asmoa da Erabiltzaile/Pazientearen autonomia indartzea dauzkan patologien gestioan, osasunarekin lotutako erabakiak hartzeko eta zaintzeko erantzukizunean eta baliabide sanitarioen kontsumo arduratsuan.

Helburuak

- **EP.2.1 Erabiltzaile-Pazienteari asistentzi prozesu osoaren berri ematea**

Osakidetzako Pertsonak asistentzia prozesu osoari buruzko informazioa eman beharko diote Erabiltzaile-Pazienteari, Erabiltzaile-Pazienteak uler eta beregana dezan zeintzuk izango diren bere patologia tratatzeko eman beharreko pausoak, eta baita asistentzia prozesu osoan zehar egin beharko dituen proba eta jarduerak guztiak ere. Asistentziaren protokolizazioak, gainera, informazio egokia identifikatu eta jakinarazteko aukera emango du, Erabiltzaile-Pazienteak erabaki zuzenak har ditzan.



- **EP.2.2 Erabiltzaile-Pazienteei zuzendutako informazioa hobetzea, informazio hori autozainketaren eta osasun prebentzioren sustapenera bideratuz**

Osakidetzaren xedea da Erabiltzaile-Pazienteari emandako informazioa hobetzea, bai edukian bai informazio hori eskuragarri egoteko ahaleginean. Hala, Erabiltzaile-Pazienteen osasunari loturiko emaitzak hobetzen lagunduko du eta, aldi berean, Erabiltzaile-Pazienteok euren osasunaren zaintzan daukaten ardura euren gain hartzea ahalbidetuko.

- **P.2.3 Erabiltzaile-Pazienteen ezagutza handitzea, bai dauden aukerei buruz, eta baita kasuan kasuko asistentzia prozesuari buruz ere**

Osakidetzaren helburua da Erabiltzaile-Pazienteari sistemak eskaintzen dituen aukeren gainean eta bere osasun egoeraren gainean ematen zaion informazioa hobetzea, Erabiltzaile-Pazienteari erabaki arduratsuak hartzea errazteko, behar den informazioa eskuragarri izanda.

Hala, Osakidetzak Erabiltzaile-Pazienteen eskubide eta betebeharren zabalkundea sustatuko du; Erabiltzaile-Pazientearen osasun egoerari dagokionez, mediku-paziente informazio prozesuak hobetuko ditu; Historia Klinikoa eta bertako datuak eskuragarri utziko ditu eta bigarren mediku baten iritzia izateko eskubidea erabili ahal izatea normalizatuko du, horri buruz arautegi aplikagarrian xedatzen denari jarraiki.



EP.3 Tratu Erabiltzaile-Pazientearekin

Osakidetzak tratu pertsonalizatu eta bidezko baten aldeko apustua egiten jarraitzen du, une bakoitzean bakoitzak behar dituen zerbitzu sanitarioak modu pertsonalizatuan eta Erabiltzaile-Paziente bakoitzaren errealitatera egokituta eskaini ahal izateko.

Bestelako kulturetatik datozen pertsonen immigrazio fenomeno eta prozesu etengabeak eragin erabakigarria izaten ari dira hiritarren tipologia eta eskakizunetan; hainbeste, non multikulturala den erabiltzaile-paziente berri batez hitz egin dezakegun.

Gainera, Osakidetzak gero eta handiagoa den zerbitzu publikoen eskaerara moldatu behar du, EAEko zeinahi hizkuntza ofizialetan, baldintza berberetan, legezko aginduen arabera.


Errealitate horien aurrean, Osakidetzak Erabiltzaile-Pazientearekiko tratua hobetzearen aldeko apustua egin du, asistentzia prozesu osoan zehar pertsonalizazioa indartuz eta errealitate kulturalera egokitzuz, zerbitzu sanitarioak erabiltzen dituen bitartean erabiltzaile-pazientearen konfiantza eta erosotasuna eta, ondorioz, bere satisfazioa, handitzeko helburuaz.

Helburuak

- **EP.3.1 Erabiltzaile-Pazientearenganako tratuaren pertsonalizazioa indartzea**

Osakidetzak nahi du espazio fisiko espezifikokoak prestatzea, Erabiltzaile-Pazientearen intimitatea babesteko, itxoiteko denbora ahalik eta gehien laburtzeko, Erabiltzaile-Pazienteari kalitateko atentzio sanitarioa emateko behar den denbora eskaintzea, eta erabilgarri izan dakioken informazio guztia ematea. Helburu horren barruan, halaber, hainbat ekimenen lanketa ere sartzen da, hala nola erditzeko geletan banakako oheak jartzea, banakako logelak, eta abar.

Tratuaren pertsonalizazioa indartzeko, funtsezkoa izango da Osakidetzako Pertsonak gai horietan prestatuta egotea, balio korporatiboak indartu eta hedatu daitezten.



- **EP.3.2 Zerbitzua Erabiltzaile-Pazientearen hizkuntza eta kultura errealitatera moldatzea**

Alderdi linguistikoei dagokienez, euskararen erabilera sendotu egingo da Osakidetzan horretarako politika mesedegarriak garatzen jarraitzen bada, lekuan lekuko hartzaileekiko komunikazioetan erabiltzeko ildoak ezarriz, emandako asistentzia hobetze aldera.

Halaber, immigrazio prozesuek eragindako inpaktuari aurre egiteko, Osakidetzak erabiltzaile-paziente berrien eskakizun eta errealitate zehatzetara egokitu behar du (hizkuntza, elikadura ohiturak, ohitura erlijiosoak etab.)

- **EP.3.3 Erabiltzaile-Pazientearentzako atentzioaren egitura indartu eta estandarizatzea**

Osakidetzaren xedea da Erabiltzaile-Pazientea artatzeko zerbitzuak homogeneousatzea, doan zentzura doala, antzeko tratua jaso dezan. Erantzunak proaktiboa izan behar du, zerbitzu horietan diharduten Pertsonak sor litezkeen gatazkak ebazteko prestaturik egon behar dute, Osakidetzaren balio korporatiboak eta irudia transmititzeko.



4.2 OP: Osakidetzako Pertsonak

Bertan diharduten Pertsoneri dagokienez, Osakidetzak profesional berriak erakartzearen alde egiten du, daudenak leial bihurtzearen alde, Pertsonak modu bikainean prestatuko dituen prestakuntza eskaintza erakargarri baten alde, Pertsona bakoitzaren lorpenak eta ahaleginak aitortuko dituen sistema bat lantzearen alde, informazioaren transmisio aktiboa indartzearen alde eta Erakundeko Pertsonen arteko benetako komunikazioaren alde. Hori guztia lan osasuna bermatuko duen eta lan bizitza eta bizitza pribatua uztartzeko hainbat aukera eskainiko duen inguru batean.

Osakidetzak beharrezkotzat jotzen du pertsonen gestio integralaren bidean aurrera egitea; hori dela eta, lanpostu bakoitzaren definizio espezifikoen aldeko apustua egiten du, lanpostu bakoitzerako pertsona onenak aukeratzearen alde, eta prestakuntza aipatutako eskakizun horietara egokitzearen alde.

Ildo estrategikoak

OP.1 Informazioaren komunikazio eta transmisio aktiboa Osakidetzako Pertsonen artean

OP.2 Lan bizitza eta bizitza pribatua uztartzea

OP.3 Prestakuntza

OP.4 Aitorpen sistemak

OP.5 Lidergoa

OP.6 Pertsonak erakarri eta leial bihurtzea

OP.7 Lan Osasuna



OP.1 Informazioaren komunikazio eta transmisio aktiboa Osakidetzako Pertsonen artean

Osakidetzak bertan diharduten Pertsonen arteko informazio transmisio aktiboa indartzeko apustua egiten du, Erakundeko maila guztien arteko informazio fluxua arina eta eraginkorra izatea bermatzeko. Gainera, pertsonen artean komunikazio formala eta informala indartzearen alde egiten du, hala egiteak konfiantza, sinesgarritasuna eta inplikazioa baitakartza.

Osakidetzaren tamainak eta Zerbitzu Erakundetan egituratua egoteak beharrezko egiten du ahaleginean indarra jartzea, are gehiago kontuan hartzen badugu Pertsonen arteko komunikazioa Pertsonak inplikatzeko eta motibatuzko tresna dela. Gainera, kontuan hartu beharra dago kanpoko informazioen inpaktuek -batzuetanbenetako errealitatearekin zerikusirik ez dutenak- Osakidetzako Pertsonengan duten eragina.

Informazio eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) alorrean izaten ari diren aurrerapen teknologikoen aplikazioak eta erabilerak informazioaren transmisioa erraztendute eta, aldi berean, informazio hori modu arin eta eraginkorrago batean biltegitatu eta gestionatzeko aukera ematen dute.

Osakidetzak hobetzeko aukerak identifikatu behar ditu, bai informazioaren transmisio formalari dagokionez bai informazioa transmititzeko bitarteko egokienak erabiltzeari dagokionez.


Helburuak

- **OP.1.1 Erakundearen komunikatzeko bideak indartzea, Osakidetzako Pertsona guztiei informazioa zuzen transmititzeko**

Helburua da informazioak modu eraginkorrean komunikatzea, mezuak kolektiboetara egokituz eta informazioaren helbururainoko bidea zehaztuz. Osakidetzak informazioa Erakundeko Pertsonen komunikatu eta transmititzeko sistema aktibo bat ezarriko du, non Zerbitzuen Erakundearen parte hartze aktiboakontuan hartuko den. Gainera, gaur egun dauden komunikazio bideak komunikaziorako bide/tresna berrieekin osatzeko asmoa du.

- **OP.1.2 Zerbitzu Erakundeetan informazio eta komunikazio sistema propioen garapena indartzea**

Osakidetzak sistema eta bide espezifikoaren diseinua sustatuko du Zerbitzu Erakundeetan, bakoitzaren ezaugarri propioak aintzat hartuta. Politika korporatiboetan oinarrituta, barne komunikazio espezifikoak bultzatuko da.



OP.2 Lan bizitza eta bizitza pribatua uztartzea

Lan bizitza eta bizitza pribatua uztartzearena egungo gizartean gorantz doan eskaera da. Egoera familiarrak nahiz bizi joera berriak direla-eta, langileek oso positibokibalioesten dituzte erakundeek eskaintzen dituzte uztarketa modalitate askotarikoak. Ildo horretan, Osakidetzak baditu dagoeneko horren aldeko hainbat mekanismo (baimenak etab.).

Laneko jarduerak eta jarduera pribatuak uztartuz, pertsonen Erakundearekiko gogobetetzea eta leialtasuna sustatzen dira, Osakidetzako Pertsonen garapenerako giro mesedegarria sortzen laguntzeaz gainera, ez bakarrik alderdi profesionalari dagokionez, baita bizitzako gainerako aspektuei dagokienez ere.


Hori dela eta, Osakidetzak behar bezalako lan giro eta baldintzak bultzatu eta martxan jartzen jarraitu nahi du, pertsonak ahalik eta ondoen batera ditzaten euren jarduera pertsonalen garapena eta jarduna.

Helburuak

- **OP.2.1 Interesen bateragarritasuna kontuan hartuko duten plangintza eta lan sistema moduak ezartzea**

Osakidetzak lan sistema berriak garatu eta daudenak optimizatu nahi ditu, Erakundeko jarduera mailak eta Osakidetzako Pertsonen ardura pertsonal zein familiarrek bete ahal izatea bateragarri egiteko helburuaz. Hala Pertsonen bizi kalitatea hobetu egingo da, hiritarrei emandako zerbitzuen kalitateari kalterik egin barik (are gehiago, kalitatearen mesedetan).

Lan sistema horiek Zerbitzu Erakundearen arteko portaeraren homogeneotasuna sustatuko duten eta, aldi berean, Pertsonen premia espezifikoetara egokituko diren oinarritzko irizpideetan oinarrituko dira.



OP.3 Prestakuntza

Aurrerapen zientifikoak, teknika eta teknologia berrien garapena, asistentzia prozesu berrien agerpena eta ezagutzak etengabe eguneratzen ibili beharraren eraginez, prestakuntza ezinbesteko elementua dugu pertsonak kualifikatu eta haien trebetasun, jarrera eta gaitasunak garatzeko.

Osakidetzak, ezagutzak sortzeko enpresa bat den aldetik, bere Misioa betetzeko giltzarriztat jotzen du prestakuntza. Osakidetzaren aktiborik handiena, prestakuntza handiko Pertsonak dira, ezagutza tekniko, asistentzial eta ez-asistentzialak etengabe eguneratzen dituztenak, eta euren trebetasunak eta gaitasunak lantzen dituztenak. Horregatik, Osakidetzak bertako pertsonen prestakuntza bikainaren aldeko apustua egiten du, lanpostu bakoitzaren beharrei eta zehaztutako kompetentziei egokitu. Gainera, prestakuntza izango da Erakundea esparru aberasgarri gisan identifikatzeko elementua, non edozein kategoriatako profesionalek karrera bat landu ahal izango duten, beti ere etengabeko aurrerapen eta hobekuntzan.

Helburuak

- **OP.3.1 Asistentziaren eta gestioaren alorretan Osakidetzako Pertsonen prestakuntza ziurtatzea**

2008-2012 aldian, Osakidetzak aspektu asistentzialei eta ez-asistentzialei buruzko prestakuntza programa bat landuko du, lanpostu bakoitzari dagozkion gaitasun eta beharrei erantzungo diena. Programa hori tresna baliagarria izango da Osakidetzak bertako Pertsonen prestakuntza ziurtatzeko eta, era berean, baita programa horren aplikazioa sustatzeko ere, sormen prozesu berritzaileak gauzatzeko oinarri gisan.

- **OP.3.2 Erakundearen prestakuntza eskaintza irizpide korporatibo bidezkoen bitartez indartzea**

Osakidetzaren asmoa da prestakuntza eskaintza bere zerbitzua egituratuz indartzea. Kontua da irizpide eta aukera esparru komun bat sortzea, prestakuntzarako aukera bidezkoa izan dadin. Horretarako, Osakidetzak teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aztertuko ditu (prestakuntza birtuala), eta unibertsitateekin eta bestelako hezkuntza erakunde batzuekin itunak adostearen alde egingo du.

OP.4 Aitorpen sistemak

Osakidetzarentzat, aitorpen sistemak dira metodo edo tresna batzuk espezifikoki positibatzat dituztenak balio erantsiko jarduerak, inplikazioa eta Pertsona bakoitzak taldeari egiten dion ekarpena. Aitorpen hori hainbat erataria izan daiteke, hala materialki nola ez-materialki.

Aitorpen sistemak ezartzea eta garatzea ohiko praktika da enpreetan, eta enpresotan ezagutzen, trebetasunen eta gaitasunen ebaluaziorako kultura sartzeko erabiltzen da, pertsonen ahaleginak eta lorpenak saritzeko helburuz, baita pertsonen gaitasunak garatu eta hobetzeko helburuz ere.

Gaur egun, garapen profesionala aitorpenerako tresna da Osakidetzan. Sistema hori ez oraindik erakunde kolektibo guztietan aplikatu: fakultatiboek ezarria daukate, erizaintzan garapen fasean dago eta aplikatzeke dago Osakidetzako gainerako kolektibo eta Pertsonetan.

Osakidetzak garapen profesionala eta aitorpen sistema osagarrien analisia sendotzeko apustua egiten du, helburu hauekin: batetik, funtzioak kalitatez eta modu eraginkorrean betetzeko elementu motibagarriak garatu eta ezartzea; bestetik, gaitasunak hobetzea eta, azken batean, Erakunde kolektibo guztien garapena ahalbidetzea.


Helburuak

- **OP.4.1 Garapen profesionalaren sistema Erakunde osoan sendotzea**

Kolektibo zein maila guztietan ebaluazio eta garapen profesionalerako sistema artikulatzea baliagarria izango Osakidetzari Pertsona bakoitzak betetako zereginak baloratu eta aitortu ahal izateko. Behin ezarpen fasea gainditu ondoren, Osakidetzak ahalik eta gehien garatuko du.

- **OP.4.2 Aitorpenerako formula osagarriak aztertzea, Zerbitzu Erakundeek garatuko dituzten oinarritzko irizpideetan oinarrituta**

Osakidetzak, Pertsonen taldeka nahiz banaka egindako lanak aitortzeko formulak aztertuko ditu, erakundeek martxan jarritako jarduerak onetan oinarrituz eta aitorpena egiteko oinarritzko irizpide batzuk zehaztuz, ondoren Zerbitzu Erakunde bakoitzak landu ditzan.



OP.5 Lidergoa

Osakidetzako Pertsonen gestioan parte hartzeko egindako eskaerak -Erakundeari dakartzkion aspektu mesedegarriekin batera- izaera estrategikoa ematen dio horren ezarpenari eta garapenari. Osakidetzako Pertsonen osatutako erakundea da, eta Pertsonok dira, hain zuzen ere, arrakastaren giltza. Parte hartzea eta ardurak hartzea banaezinak diren bi giltzarri dira. Maila guztietan parte hartzea bultzatuko duten eredu eta sistemetarantz jo behar da, bai taldeetan bai erakundeetan inplikazio handiagora lortzeko.

Osakidetzak erabakitasunez egiten du apustu lidergo pertsonalaren alde, horixe baita parte hartzeko gestio eredu, Osakidetzako Pertsonen Erakundearekiko inplikazioa sustatzen duena. Lidergoa esatean, ulertu behar da Pertsona bakoitzak bere zereginetan eta mailan, dagokion taldean eta Erakundearen, hartzen dituen ardurak, eta noraino inplikatzeko den.

Helburuak

- **OP.5.1 Osakidetzako Pertsonen parte hartzea handitzea, lidergoaren garapenean oinarrituta,** gestio eredu parte hartzaile batekin, gestio tresnak hedatu ahal izateko, hala nola gestio klinikoko kontratuak, gestio planak, plangintza estrategiko partaidetua, eta abar.
- **OP.5.2 Taldeko arduradunen lidergoa indartzea,** pertsona horiek lidergo gaitasunetan eta balio korporatiboetan, Erakundearen helburu eta plangintzetan prestatuz, zeregin horietan egiten duten lana ebaluatze aldera. Taldeko arduradunen lidergoak, lidergo generikoa baino, erantzukizun eta konfiantzazko giro batek babestutakoa behar du.



OP.6 Pertsonak erakarri eta leial bihurtzea

Pertsonak erakarri eta hautatzeko egungo sistemak, Osakidetzan sartzeko, Herri Administrazioi lanpostuetan sartzeko ekitate/berdintasunezko lege aginduei erantzuten die. Hala ere, metodo horiek hobetu egin daitezke Zerbitzu Erakunde bakoitzaren behar erreal eta zehatzekin bat eginda jarriz gero.

Pertsonak atzitzea fase giltzarria da lanpostura ondoen egokituko den profesionala identifikatu eta aukeratzeko, eta pertsona talde lehiakor bat sendotzeko, horixe izango baita Erakundeak eman beharreko zerbitzuen arrakastaren giltzarrietako bat.


Egungo errealitate sanitarioa eta, zehazkiago esanda, euskal sistema sanitarioaren errealitatea, profesional sanitarioen lan aukera gero eta murriztagoak ezaugarritzen du. Horren aurrean, beharrezkoa da, alde batetik, Osakidetzan dagoeneko badiharduten Pertsonak leial bihurtzea, eta bestetik, profesional trebatu berriak identifikatu eta erakartzea, kalitateko zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko.

Osakidetzak atzitze eta hautatze sistemak etengabe egituratzearen aldeko apustua egiten du, lanpostu bakoitzerako pertsonarik egokiena identifikatu eta erakartzeko, postuari dagozkion eskakizunen eta ezagutzen, trebetasunen eta gaitasunen arabera.

Helburuak

- **OP.6.1 Pertsonak lanpostuen eskakizun espezifikoetara egokitzeko aukera emango duen Lan Eskaintza Publiko eta hautaketa sistema bat ezartzea**

Osakidetzak nahi du hautaketa sistema lanpostuen eskakizun espezifikoaren arabera izatea, gaitasun ereduak aplikatuz. Hala, lanpostu bakoitzerako profesionalik gaituenak izango ditu.



- **OP.6.2 Osakidetzan sartzen diren pertsonentzako harrera sistema bat ezartzea, pertsonok Erakundearen eta lanpostuen kultura eta eskakizunetan integratu ahal izateko**

Harrera sistema baten garapenak eta ezarpenak, pertsonak erakundearen eta lanpostuak eskatzen dituen funtzioen kulturean integratzea erraztuko du eta, ondorioz, pertsona horiek inplikatzeko eta konpromisoak hartzea lortuko da.

- **OP.6.3 Pertsonak erakartzeko modu berritzaileak aztertu eta garatzea**

Osakidetzak egingarritasuna aztertu nahi du eta, hala beharko balu, profesionalak erakartzeko proposamen eta modu berritzaileak landu, Pertsonen eta Erakundearen arteko ahalegin partekatuan oinarritutako barne sustapenerako sistemen bitartez. Hala, profesional nagusiki sanitarioen barne sustapenerako sistemen bidez, profesional eskasia handiena izatea aurreikusten direneko mailetarako pertsonak erakar litezke eta horretarako, behar bezala prestatu egongo diren eta hala profesionalki nola gizatasunari dagokionez garatuaz joango diren Pertsonak behar dira.



OP.7 Lan Osasuna

Egungo gizarteak gero eta garrantzi handiagoa ematen dio pertsonen osasun fisiko eta mentalari lanean dihardutenean eta azken helburua da pertsona, lanean dagoela, oreka integralaren jabe izatea. Horrek, era berean, lan arriskuak prebenitzearen gaineko kezka eta sentiberatasun handiagoa pizten du.

Derrigorrez bete beharreko legezko perspektibaz gaindi, Osakidetzak hobetzeko faktoretzat jotzen du lan arriskuen prebentzioa, enpresaren asistentzia, eraginkortasuna eta gestio globala optimizatzeke. Eta ezin da ahaztu, era berean, laneko bajak murrizteak dakarren produktibitate hobekuntza eta horrek sistemaren iraunkortasunean daukan eragina.

Gure jarduna gauzatzen deneko erantzukizun sozial eta etikoaz jabetuta, Osakidetzak bere konpromisoa agertu nahi du prebentzioarekin, zeren eta prebentzioak pertsonen segurtasuna bermatzeko aukera ematen du, lanean ari direnean.


Osakidetzak buru da Lan Arriskuen Prebentzioa Gestionatzeko Sistema baten lanketa eta ezarpenean, eta horrek berme hori lortzea ahalbidetzen du, eta baita segurtasun eta osasun baldintza egokiak lortzeko lanean diharduten eragile guztien partaidetza ere.

Helburuak

- **OP.7.1 Lan osasuna gestionatzeko sistemako erakundeetan ezarpena indartzea**

Osakidetzaren helburua da bertako Zerbitzu Erakunde guztietan lan arriskuen prebentzioa gestionatzeko sistema bat ezartzea. Ezarpen horren azken xedea da Osakidetzako Pertsona guztien gogobetetzea handitzea, jarduera espezifikoak garatuz; eta horien artean nabarmenenak, laneko arriskuei eta arrisku psiko-sozialei dagozkienak dira.

Helburu hori lortzeko bermea, gai horri buruzko ziurtapena eskuratzetik etorriko da (OHSAS). Ziurtapena, beraz, aipatutako prebentzio sistema eta lan osasunari buruzko politika globalak ondo ezartzearen ondorioa izango litzateke.



4.3 AE: Asistentzia Eredua

2008-2012 aldirako, Osakidetzak Erabiltzaile-Paziente prozesuaren ikuspegi berri bat zehazteko apustua egiten du, lehen mailako atentzioa eta atentzio espezializatuaren arteko koordinazioa eta integrazioa sendotuko dituena. Hala, asistentzia jasotzen duen pertsona, atentzio zuzen, global eta jarraituaren lehen eta azken helburua izatea nahi da.

Birdefinizio horren emaitzak aldi estrategikoaren bukaerako proba pilotuan ikusiko badira ere, zerbitzu zorroari, bikaintasun klinikoari eta segurtasun klinikoari buruzko jardueren eredua apurka-apurka lehen aipatutako azken helburuari egokitzea ahalbidetuko dute, asistentziaren banaketa geografikoari, hiritarrenganako hurbiltasunari, zerbitzuaren kalitateari eta asistentzia jardueraren segurtasunari dagokienez.

Asistentzia prozesuaren ikuspegiaren berrikuspen hori, historia kliniko elektronikoa bakar batean espezifikoki islatutako Informazio Sistemetan oinarritu beharko dute derrigorrez.

Ildo estrategikoak

- AE. 1 Ikuspegia Erabiltzaile-Pazientearen prozesuan
- AE. 2 Zerbitzuen zorroa
- AE. 3 Bikaintasun Klinikoa
- AE. 4 Segurtasun Klinikoa



AE.1 Ikuspegia Erabiltzaile-Pazientearen prozesuan

Denboraren joanarekin, Erabiltzaile-Pazientea artatzeko prozesuak aldatuz joan dira progresiboki, eta emaitza arrakastatsuak lortu dira; hala ere, prozesuok optimizatze, garapenean badago zer hobetu. Horrekin batera, hausnarketa sakona egin beharra dago, Erabiltzaile-Pazientearentzako asistentzia integralaren gainean ikuspegi berritzaile bat emateko.

Osakidetzak Erabiltzaile-Pazientea artatzeko modua birdefinitzeko apustua egiten du, halako moldez non asistentzia prozesua osotasun global eta jarraitu baten barruan ulertuko den, sistema sanitarioarekin lehen kontaktua izaten denetik premia amaitzen den arte. Osakidetzak ahalik eta gehien murriztu nahi du zaintzetan gerta litezkeen etenak, prozesua laburtuz, zainketa prozesu azkarragoa, koordinatuagoa, gardenagoa eta Erabiltzaile-Pazientearentzako eskuragarriagoa garatzeko helburuarekin. Horrek zainketari buruzko ikuspegia aldatzea dakar, eta ardatz nagusia, beraz, maila guztietako jarduerak integratuko dituen “prozesua” izango da. Ildo estrategiko horretan, Osakidetzako helburuek eredu berriaren garapena azpimarratzen dute. Are gehiago, eredu berri horrek egiturazko planteamenduetan (proba pilotuak emandako emaitzetatik eratorriak) izan lezake bere isla.

Helburuak

- **AE.1.1 Erabiltzaile-Pazienteari eskainitako asistentzia prozesuaren ebazpena hobetzea**

Osakidetzak Lehen Mailako Atentzioko eta Atentzio Espezializatuko funtzioak berrikusiko ditu, eta baita bion arteko interakzioa ere, asistentzia optimizatze aldera. Beste aspektu batzuen artean, lehen mailako atentzioaren ebazteko ahalmena handituko da, Lehen Mailako Atentziolari patologiak ezaugarritu eta konpontzeko behar diren aukerak emanez, aukera horiek aztertu ostean.

Era berean, Erabiltzaile-Pazientearen zirkuituak birdefinituko dira atentzio espezializatuan, asistentzia klinikoan zehar behar ez diren jarduerak eta jarduera erredundanteak ezabatze. Ildo horretan, bereziki azpimarratuko dira bereizmen handiko prozesuen garapena.

Azkenik, Sare Psikiatriko eta Osasun Mentaleko ospitaleaz kanpoko eta barneko gailuak egituratu eta hobetuko dira, gailuok eremu/gune sanitarioetan sailkatuz, dagokion Plan Estrategikoan xedatutakoari jarraituz. 2008-2012 aldian zehar, Osasun Mentaleko estrategia berrikusi eta eguneratu egingo da.

- **AE.1.2 Asistentzia prozesu integrala diseinatu eta prozesuari ekin**

Erabiltzaile-Pazienteak asistentzian zehar egiten duen ibilbidea konplexua izan daiteke. Gainera, patologia oro har tratatzeko dauden formulario eta modu berriek, soluzio berrietarako aukera oparoa eskaintzen dute.

Osakidetzak atentzio asistentzialerako prozesu integral berria aztertu eta zehaztuko du, eta horretarako proba pilotu bat diseinatu eta landukoa du, Erakundeari Erabiltzaile-Pazientearentzako asistentzia zerbitzu azkar eta kalitatekoaren bermea sendotzeko aukera emango diona, konponketarako epe onargarrietan. 2008-2012 aldi estrategikoan proba pilotua balioetsi eta balidatzea ere aurreikusten da, Erakundearen ikuspegi berria progresiboki ezartzen has dadin.



AE.2 Zerbitzuen zorroa

Osasunari loturiko behar berriak agertu izanak, atentzio sanitarioaren eskaerak progresiboki gora egiteak, eta baita aurrerapen teknologikoak, Erakundearen zerbitzu eskaintza berrantolatzea behartzen gaituzte. Osakidetzak beharretara egokitzeko gaitasun handiagoa izatea bermatu nahi du, zerbitzu sanitarioetan azkartasun, eraginkortasun eta eskuragarritasun handiagoa eskainiz.

Helburuak

- **E.2.1 Osakidetzako zerbitzuen zorroa berrantolatzea, zerbitzuen zorro hori asistentzia beharren eskaerara egokituz**

Osakidetzak, dauden Zerbitzu Erakundeetako bakoitzean egokituko du zerbitzuen zorroa, Erabiltzaile-Pazienteen beharrak eta dauden baliabideak zeintzuk diren kontuan hartuz. Berrantolaketa horren barruan, taldeen gaitasunak kontuan hartuko dira, ekitatea (baita lurralde ekitatea ere) eta zerbitzu eraginkortasuna bermatze aldera. Gainera, zerbitzuen zorroari buruzko erabakiek ebidentzia zientifikoa oinarritu beharko dute.

- **AE.2.2 Ospitaleratze tradizionalaren ordezeko aukeren erabilera zabaltzea**

Baliabideen erabilera optimizatzeko eta, hobetzeko bidean, asistentzia benetako beharretara egokitzeko, ospitaleratzearen ordezeko aukeren erabilera zabalduko da, asistentzia prozesua Erabiltzaile-Pazientearengana hurbilduz eta prozesu hori erraztuz. Ordezko modalitateen artean, aipagarriak dira etxeko ospitaleratzearen estaldura handitzea, egonaldi laburreko ospitaleratzearen hazkunde progresiboa, larrialdietako behaketa eremuen indartzea, kirurgia handi anbulatorioaren (KHA) zabalkundea edo aurre-ospitaleratze unitateen indartzea. Ospitaleratze tradizionalaren ordezeko aukerek eragin berezia izango dute tratamendu aringarrietan.

- **AE.2.3 Bereizmen handiko prozesuak indartzea**

Zerbitzu sanitarioak modu globalean, prozesu oso baten barruan, eskaintzeko bereizmen handiko zentroak eraikitzeak aukera emango du Erabiltzaile-Pazienteari tratu pertsonalizatua, hurbila, arina eta hobetua emateko. Dagoeneko egon badauden zentroetan, bereizmen handiko prozesuak eta lehenetsuneko zainketa sustatuko dira, patologiarik larrietan zirkuitu azkarrak eginez.

AE.3 Bikaintasun Klinikoa

Osakidetzaren printzipio eta erronka handiei eragiten dien gaietako bat bikaintasun klinikoaren Sustapena da. Osasunaren arloan emaitza gehiago eta hobeak lortzeko Erabiltzaile-Pazienteek daukaten gero eta interes handiagoa, aurkikuntza progresiboak eta teknologia berriak; horien guztien eraginez, Osakidetza etengabe ari da, bere izaeragatik, proba diagnostikoen erabilera eta gaixotasunen tratamenduak biztanleen osasunaren zerbitzura gero eta hobeto egokitzeko lanean.

Osakidetzak atentzio sanitario bikaina bilatzen du, atentzio pertsonalatuagoa, Erabiltzaile-Pazientearen behar partikularretan zentratuagoa, emaitza onenak emango dituena. Hori hala, Osakidetzak apustua egiten du bere ahalegina profesionali laguntzera bideratzeko, bikaintasun klinikoaren etengabeko bilaketan.


Helburuak

- **AE.3.1 Praktika klinikoa etengabe hobetzea**

Praktika klinikoaren bariabilitatea ez justifikatua murriztea, ekimenak proposatu eta dokumentatuz, osasun estrategiei loturiko praktika klinikoari buruzko giden erabilera bultzatuz, Erabiltzaile-Pazienteen bizi kalitatearen gaineko ezagutza hobetuz eta ebidentzian oinarritutako medikuntza hedatuz.

- **AE.3.2 Baliabide asistentzial/klinikoak egoki erabiltzeko kultura sustatzea**

Gaur egun, profesional sanitarioek hainbat bitarteko daukate pazienteak artatzeko, eta horrek, batzuetan, erabaki klinikoak hartzea zailtzen du, esaterako, zein proba diagnostiko erabili edo zein tratamendu egiteko agindu erabakitzerakoan. Hala, Osakidetzak diagnostikorako eta tratamendurako bitartekoen erabilera egokia sustatu nahi du, ebidentzian oinarrituz. Hala eginez gero, gehiegizko edo behar ez diren inpaktuak ekidingo zaizkio Erabiltzaile-Pazienteari; eta beharrezkoak ez diren gastuak egitea ere ekidingo da.



AE.4 Segurtasun Klinikoa

Praktika klinikoaren konplexutasunak -patologia berrien agerpenarekin-, interbentzio klinikoen hazkundeak eta sendagaien erabilera gero eta handiagoak nahi gabeko ondorioak sortzen dituzte batzuetan. Izan ere, erigarritasun-hilezkortasun handia dakartzate atentzio sanitarioan, eta agerian uzten dute segurtasun klinikoan lanean jarraitu beharra. Hori dela eta, Osakidetzarentzat lehentasunezkoa da prebentzioan, sistematizazioan, konfiantzan eta erantzukizunean oinarritutako kultura zabaltzea.

Erakundearen bitzita blaituko duen segurtasun klinikoaren kulturaren aldeko apustua da. Praktika seguruak implementatuz, Osakidetzako Pertsonak partekatuko duten eta eguneroko jardunean isla izango duen sinesmen, balio eta jarrera multzo batez ari gara.

Helburuak

- **AE.4.1 Tokiko asistentzia sanitarioarekin lotutako ezbeharrak gestionatzea (zerbitzu, unitate, zentroetan), monitorizazio, neurketa eta jakinarazpen sistema bat egituratuz**

Profesionalei kultura berriaren balioen aldeko sentiberatasuna piztea eta Osakidetzako sarean Erabiltzaile-Pazientearen diagnostiko, tratamendu edo zaintzan zehar izandako emaitza kliniko zoritxarrekoen monitorizazio, neurketa eta jakinarazpen sistemen erabilera zabaltzea, emaitza horiek aztertu ahal izateko.

- **AE.4.2 Asistentzia sanitarioarekin lotutako infekzioen eragina murriztea, eta baita sendagaien erabilerari lotutako ondorio txarrak izateko arriskua ere**

Erabiltzaile-Pazientearentzako kalitateko asistentziarekin hartutako konpromisoaren barruan, Osakidetzak praktika seguruaren aldeko apustua berresten du, asistentzia sanitarioarekin lotutako infekzioen eragina murrizten baitu, eta baita sendagaien erabilerak eta gestioak dakartzan arriskuak ere. Infekzio horiek hartzeko arriskua murriztuko bada, arazoak identifikatu, kausak topatu eta egungo indizeak txikitzeko soluzioak aurkitu beharko dira. Era berean, asistentziari eta sendagaien erabilerak dakartzan arriskuei lotutako infekzioen eragina murrizteko praktika seguruak ezarriko dira.

4.4 ANE: Antolaketa Eredua

Osakidetzak, aldi estrategiko honetarako, Bikaintasuna gestionatzeko ereduaren aldeko apustuari eusten dio, eredu horretan antolaketa berrikuntzaren, berrikuntza teknologiko eta sozialaren sustapena txertatuz. Osakidetzaren Antolaketa Eredua, besteak beste, Asistentzia Eduari lotu behar zaio beti; beraz, Erabiltzaile-Pazientearen prozesuaren ikuspegia aztertzearekin batera, hausnarketa egin beharra dago gestioaren alorrean. Gainera, Erakundeak ezagutza gestionatzeko mekanismoak ezartzearen aldeko apustua egiten du, ezagutza hori, besteak beste, erakundeekiko itunen bidez, hornitzaileen bidez eta nazioarteko sareen bidez eskuratuz. Azkenik, Osakidetzak iraunkortasunaren aldeko apustua egiten du, bai barne antolamenduaren eraginkortasunari dagokionez, bai haren jarduna gauzatzen deneko inguruarekiko errespetuari dagokionez.

Ildo estrategikoak

ANE.1 Bikaintasuna gestionatzeko eredu korporatiboa

ANE.2 Berrikuntza

ANE.3 Ezagutzaren gestioa

ANE.4 Antolaketa ereduaren eraginkortasuna

ANE.5 Itunak

ANE.6 Ingurumena errespetatu eta zaintzeko kultura



ANE.1 Bikaintasuna gestionatzeko eredu korporatiboa

Duela 10 urtetik gora, Europako Bikaintasun Eredua dugu Osakidetzaren gestio eredu propioaren eredu; hala, aspektu horri dagokionez, Erakundea liderra dugu erakunde sanitarioen artean. Eredu horrek egungo erreferentzia izaten jarraitzen du eta hala izaten jarraituko du datozen bost urteetan ere. 2008-2012 Plan Estrategiko honetan zehar, eta Jarduera Eremu bakoitzari dagokionez, EFQM Eredua ezarri eta hedatzea errazten (eta indartzen) duten helburuak bildu dira Osakidetzako Zerbitzu Erakunde guztietan.

Bikaintasuna da pertsonen lidergoan, garapenean eta parte hartzean aritzea; baita bezeroari arreta jartzean eta abarretan ere. Baina horretarako, elkarrekiko dependenteak diren eta elkarren artean erlazionaturik dauden sistema, prozesu eta datuen bidez gestionatu behar da antolaketa. Hori hala izan dadin, erakunde osoan kalitatearen filosofia, etengabeko hobekuntzaren kultura eta kalitatearen kultura ezartzea planteatzen da.


Helburuak

- **ANE.1.1 Zerbitzu Erakunde guztietan eta antolaketa maila guztietan, EFQM Ereduaren hedapenean aurrera egitea**

Kontua da EFQM Eredua, etengabeko hobekuntzarako tresna den aldetik, hedatu eta erabiltzen jarraitzea, autoebaluazioen bidez, eta ereduia sustatu eta garatzen jarraitu, etengabeko hobekuntzarako tresna eta Zerbitzu Erakunde bakoitzaren errealitatera egokitutako kontraste eta aitorten elementua baita.

- **ANE.1.2 Korporazioaren ikuspegitik, prozesukako gestioa garatu eta bultzatzea**

2007ko esperientzia pilotuaren ondoren, prozesu korporatiboan mapa eguneratzeko beharra identifikatu da, interakzioen eta baldintzen definizioa bereziki azpimarratuz. Irizpide korporatiboak jarraituz, progresiboki berrikusiz eta eguneratuz joango dira. Prozesuen eraginkortasun maila zein den, berrikuntza inkrementalak edo erradikalak egingo dira.



- **ANE.1.3 Prozesuak ebaluatzeko nazioarteko Arau eta estandarren erabilpena zabaltzea (ziurtapena, egiaztapena)**

Sistematikoki gestionatutako prozesuak kanpotik ikuskatuko dira, erreferentzia gisan nazioarteko Arau eta estandarrak erabiliz. Giltzarritzat jotzen diren prozesu edo jardueretarako nazioarteko estandarrik ez balego, Osakidetzak bere estandar propioak landuko lituzke, autoebaluazioetarako edo kanpo ebaluazioetarako erreferentzia izango liritekeenak.

- **ANE.1.4 Hautemandako kalitatea eta kalitate teknikoa neurtzeko sistemak eguneratzea, kalitate sistema eta tresnak asistentzia prozesu giltzarriari aplikatuz eta kalitate helburu eta estandarrak ezarriz.**



ANE.2 Berrikuntza

Osasun sektorea, sektore bereziki dinamikoa da eta aldaketa prozesuek etengabe eragiten diote, hala erabiltzen dituen teknologietan nola prozesu operatiboetan eta lantzen eta eskaintzen dituen zerbitzuetan.

Osasun zerbitzua den aldetik, Osakidetzaren lehiakortasuna baldintzatuko du, batetik, bikaintasun operatiboak, eta bestetik, haren zerbitzu erakundeen barruan berrikuntzak egiteko ahalmenak. Erakundeak, bikaintasunera eta hobekuntzara bideratutako sistemak garatu ondoren, berrikuntzaren bidean sartzeko moduan dago, jarduera eremu guztietan.


Eusko Jaurlaritzaren berrikuntza politikari jarraituz, Osakidetzak apustua egiten du Korporazioan berrikuntzaren kultura sartzeko, sormenerako jarrera eta gaitasunak sustatuz eta garapenerako espazio eta aukerak sortuz.

Bestalde, maila korporatiboan eta zerbitzu erakundeetan berrikuntzaren gestioan aurrera egin nahi da, eta horrek berrikuntza prozesuak sistematizatzea, sormena ahalbidetu eta erraztuko duten tresnak garatzea eta hobekuntza inkremental nahiz berritzailera bideratutako iradokizun, ekimen eta ideiak erakarri, aztertu, garatu eta abiarazteko mekanismoak ezartzea dakar.

Helburua

- **ANE.2.1 Erabiltzaile-Pazientearen prozesuari loturiko Antolaketa Eredua berrikustea**

Zerbitzu sanitarioak eskaintzen dituen Erakunde baten asistentzia eredua eta antolaketa eredua bereiztea oso zaila baita, 2008-2012 aldirian, Gestio Ereduearen gaineko hausnarketa egingo du Osakidetzak. Pertsonen esperientzian oinarritutako antolaketa berrikuntzak 2012ko Osakidetzaren nolakoa izango den ikusten laguntzen du, hau da, Erakunde bat eskaera sozialaren presioei erantzuneko diena eta eskaera hori gestionatuko duena, profesionalak erakartzeko zailtasunak gaindituko dituen eta Pertsonarik onenak izango dituen, eta berrikuntza sozialean, antolaketa berrikuntzan eta berrikuntza teknologikoan erreferente izango dena.



- **ANE.2.2 Maila korporatiboan, zerbitzu erakundeetan ezarpen sistematikoa erraztuko duen berrikuntza Eredu bat lantzea**

Kontua da Zerbitzu Erakundeen, asistentzia, gestio eta prozesuei lotutako jardueren ezaugarriei egokitutako berrikuntza eredu bat sortzea, berrikuntzaren egitura eta kultura bat martxan jartzeko baliagarria izango dena.

Erakundeak hartuko duen berrikuntza estrategia Eusko Jaurlaritzak 2007an proposatutako Berrikuntzaren Manifestuan ere biltzen da, Euskadiko bigarren eraldaketa ekonomikoari ekiteko. Kontua da Erakundeetan produktu eta prozesu berritzaileak txertatzen ahalegintzea, balioa sortuko duten produktu eta prozesuak eta, beraz, emaitza identifikagarriak lortzera bideratuko direnak. Hala, biztanleei zerbitzu sanitarioak eskaintzeko lehentasunezko misioan lehiakorra dela erakutsiko du Erakundeak, eta egitura sozio-ekonomikoan izango duen eraginaren bitartez, Euskadiren garapenean berrikuntza bultzatzen ere lagunduko du.

- **ANE.2.3 Berrikuntzaren kultura ezartzea, horretarako tresnak baliatuz**, Zerbitzu Erakundeen barruan lehia zaintzeko, ideiak sortu eta lehenesteko, eta proiektu berritzaileak gestionatzeko mekanismoak ezartzeko, hala asistentziaren alorrean nola gestioaren agerraldi orotan.

Ildo horretan, Osakidetzak, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (2010erako ZTBP) bitartez, herrialdeko estrategia horretan parte hartzen du bi alderditan: I+G zerbitzuak eskaintzen dituen erakunde gisara -zerbitzu horiek Fundazioaren bidez gestionatzen dira-, eta haren inguruan sortzen den antolaketa, gestio, teknologia eta zientziarekin lotutako edozein berrikuntzaren eskatzaile gisan.



ANE.3 Ezagutzaren gestioa

Osakidetza ezagutzaren erakunde bat da, batez ere Pertsonak daukaten ezagutzaren erakundea. Erakundearen bolumenak eta metatutako ezagutzaren kantitate handiak beharrezko egiten dute ezagutza hori identifikatu eta ezaugarritzea. Osakidetzak ezagutzaren gestioa sustatzearen alde dago, gestio eta transmisiorako egitura bat ezarri. Esparru horrek ezagutza zabaldu eta handitzea ahalbidetuko du, pertsonen gaitasunak hobetuz, eta dauden gabeziak identifikatzen ere lagunduko du.

Bestalde, Profesionalak belaunaldiz belaunaldi txandatzuz joateak ez du Erakundearen metatutako ezagutza txikitu behar. Hala bada, ezagutzari eutsiko dioten mekanismoak zehaztuko dira, pertsonen fluxuak gorabehera.

Helburuak

- **ANE.3.1 Osakidetzak lanpostu, lantoki eta Erakunde bakoitzean duen ezagutza identifikatu, ezaugarritu eta zabaltzea**

Kontua da Zerbitzu Erakundeetako lanpostu bakoitzean dagoen ezagutza identifikatzea, ezagutza horren inbentarioa egiteko helburuaz, erakundearen zabaldu eta erakundea bera aberasteko. Era berean, gaur egun dauden edo etorkizunean izango diren konpondu beharreko gabeziak detektatzeko baliagarria izango da.

- **ANE.3.2 Erakundearen oro har, eta Zerbitzu Erakundeetan, ezagutza gestionatzeko tresnak eta topaguneak ezarri eta garatzea**, pertsonen arteko interakzioa bultzatu eta elkar aberasteko, denbora, espazio errealak eta espazio birtualak baliatuz.
- **ANE.3.3 Konparazio esparru bat ezartzea eta partekatzea, Zerbitzu Erakundearen artean ikasketa bultzatzeko**

Osakidetzak barneko benchmarking esparru bat zehaztuko du Zerbitzu Erakundearen artean, bai edukiei dagokienez (informazioa homogeneoa eta konparagarria izan dadin) bai konparazio prozedurari dagokionez. Mekanismo horrek, beste batzuk martxan jartzen ari diren praktika onak hautemateko aukera emango du, gero horiek aztertu eta erabiltzeko moduan prestatzeko.

ANE.4 Antolaketa ereduaren eraginkortasuna

Osakidetzak, baliabide publikoen erakunde eta kudeatzaile den aldetik, erantzukizun berezia du eraginkortasun politiken garapenean. Alde batetik, erakunde publikoek berez daukaten erantzukizunagatik; bestetik, baliabideak mugatuak direlako atentzio sanitarioaren eskaera hazkundearen aldean, eta Gizartearen exijentzia maila gorantz doalako. Erakundearen eraginkortasuna bi norabidetan landu behar da: baliabideen erabilpenaren optimizazioa eta baliabide horniduraren hobekuntza. Eraginkortasunak, gainera, asistentziaren eta Erabiltzaile-Pazientearentzako atentzioaren hobekuntza ekarri behar du.

Helburuak

- **ANE.4.1 Farmazi gastua optimizatzea**

Batetik, sendagaiak hartzeko aginduak egokiak izatea bultzatu behar da. Bestetik, gero eta handiagoa den farmazia gastua murriztu egin behar da, Osakidetzaren eta hornitzaileen arteko negoziazioa lankidetzarako sinergiak aprobeztatuta gestionatuz.

- **ANE.4.2 Erosketak modu aktiboan gestionatzea**


Erosketen gestio zentralizatua berrikusi eta, hala behar duenean, birformulatu egin behar da, potentzial osoa garatuz eta bai Erakundeak bai Zerbitzu Erakundeek daukaten erosteko abantaila erabiliz, kontratazio baldintzak hobetzeko.

- **ANE.4.3 Baliabideak modu aktiboan koordinatu eta banatu**

Osakidetzak jarraibide harmonizatzailerik ezarriko ditu Erakunde osoan Zerbitzu Erakunde bakoitzeko lan ereduaren inguruan, espezialitate jakin batzuetan profesionalen lan aukera handituko dutenak. Hala, zerbitzuak ahalik eta ondoen kokatzeko estrategia bat landuko da eta telemedikuntza nahiz telediagnostikoa sustatuko dira.

- **ANE.4.4 Irizpide korporatiboak ezarri eta gestio tresnak garatzea, inbertsio estrategiko zein ez-estrategikoei buruzko erabakiak hartzeko**

Aldi estrategiko honetan definitu beharreko Esparru Teknologikoan nahiz teknologikoak ez diren eremuetan, Osakidetzak inbertsioei buruzko analisiak egin eta erabakiak hartzeko irizpide korporatiboak zehaztuko ditu. Halaber, beste aldagai batzuen artean, jarduerarekiko kostua zein izango den, pertsona bakoitzaren kontsultako gastua zein izango den eta jardueraren helburuak baloratzeko gestio tresna bat izango du, erabaki zuzenak hartu ahal izateko.



ANE.5 Itunak

Osakidetzak eutsi egiten dio, indar handiagoz, interes taldeekiko lehentasunezko erlazioari, baita itunei eta erakunde, enpresa eta elkarte egiturekiko itunei eta interakzioari dagokienez ere.

Osakidetzaren eta hainbat alorretako erakundeekin itunak adostearen helburua da, denon onurarako, beste erakundeekin batera informazioa, ezagutza edo teknikak trukatu eta sortzea. Gainera, proiektu komunak garatzeko eta, beste erakunde batzuek abiarazitako esperientzia eta ekimenak trukatzu, Erakundearen ezagutza etengabe eguneratzeko lankidetzak akordioak ezartzeak, Osakidetzaren lehiakortasuna, eraginkortasuna eta iraunkortasuna hobetzen lagunduko du.


Helburua

- **ANE.5.1 Itun kopurua modu proaktiboan handitzea, elkarte zientifikoekin, unibertsitateekin, profesional taldeekin, teknologia zentroekin eta hornitzaileekin**

Egun indarrean dauden itunak indartzea eta eragile estrategikoekin lankidetzan itun berriak ezartzea, alde bien onurarako, batez ere ikerketaren eta berrikuntzaren sustapenean.

- **ANE.5.2 Erabiltzaile-Pazienteen elkarteekin, erakunde publikoekin eta indar sindikalekin harreman sarria izatea**

Osakidetzak harreman sarria izan nahi du Erabiltzaile-Pazienteen elkarteekin eta erakundeekin, ezagutza eguneratu eta errealitate sozialarekin kontaktuan egoteko. Era berean, indar sindikalekiko erlazio eredu bat ezarri eta indartuko da, lankidetzak ardatz izango duena, non, Erakundea garatzeko, ekarpenak modu eraikitzailean egingo diren.



ANE.6 Ingurumena errespetatu eta zaintzeko kultura

Osakidetzak ingurumena errespetatu eta zaintzeko kultura sendotzearen aldeko apustua egiten du, erakundeen gestioan hiru alderdi hauek bilduko dituzten ingurumen irizpideak ezarriz:

- Planetaren zainketa
- Finantza baliabideen kontsumoa
- Hondakinen sorkuntza eta gestioa

Horrek, Erakundeak ingurumenean eragiten dituen inpaktu negatiboak murrizten lagunduko du, eta Osakidetzako Pertsonen artean ingurumena errespetatuko duten jokaera ohiturak sustatuko ditu, ingurumen iraunkortasunaren alde egiteko.

Helburuak

• ANE.6.1 Jarduera ingurumenaren iraunkortasunera bideratzea

Osakidetzaren 2008-2012 aldirako lehentasunezko helburua da ingurumenean duen inpaktua txikitzea. Energiaren erabilera arrazionalak eraginkortasun energetikoa handituko du; energia berriztagarrien erabilera sustatzeak sortutako kutsadura minimizatuko du. Hori hala, Osakidetzak bere zentroetan airea girotzeko soluzioak aztertu eta ezartzearen garrantzia azpimarratuko du, bai soluzio teknologikoak bai arkitektonikoak.

Ingurumena gestionatzeko ziurtapenak lortzea Erakundeko Pertsonen artean ingurumena errespetatuko duten ohiturak eta kultura sustatzeko beste pauso bat izango da. Gainera, Osakidetzak bere eraikinentzako gehieneko sailkapen energetikoa lortzea izango du helburu, bai orain dauden eraikinetan bai etorkizunekoetan, beti ere egingarritasun eta eraginkortasun irizpideei jarraituz.

• ANE.6.2 Osakidetzako Pertsonen artean ingurumenarekiko errespetuaren kultura sortu eta zabaltzea

Osakidetzak eta bertako Zerbitzu Erakundeek gara dezaketenetik harago, Erakundeak ingurumenarekiko errespetua bultzatuko duten ohiturak eta kultura sustatuko ditu, bertako Pertsonak horretaz sentiberatuz. Helburu horren bidez, Osakidetzak sistemaren (eraginkortasuna) eta ingurunearen (kutsadura txikiagoa) iraunkortasunari egindako ekarpena sendotuko da.

4.5 TA: Teknologia eta Azpiegiturak

Osakidetzak teknologiaren abangoardian jarraitu nahi du. Horretarako, aldi estrategiko honetan Erakundearen politika teknologikoaren esparrua zehaztuko da, inbertsio estrategiko nagusiak irizpide korporatibo objektiboen arabera aztertu, baloratu eta zehazteko aukera emango duena.

Bestalde, Osakidetzak Informazio Sistemak lotutako aurrerapenak bereganatzeko apustua egiten du, Erabiltzaile-Pazientearen onurarako, asistentzia prozesuaren gestio tresna integratu gisara eta, beraz, baita Lehen Mailako Atentzioa eta Atentzio Espezializatua koordinatzeko tresna gisara ere. Era berean, Osakidetzak informazio sistema korporatiboak garatzea du xede.

Azkenik, Osakidetzak bere egiten du Osasun Sailak 2007-2012 aldirako landu duen Euskal Sistema Sanitarioaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Plana. Plan horretan xedatutakoa, dena den, egungo azpiegitura aktiboen berrikuspen xehatuarekin eta egokitzapenarekin osatuko du.

Ildo estrategikoak

TA.1 Politika teknologikoaren esparrua

TA.2 Informazio Sistemak

TA.3 Asistentzia azpiegiturak



TA.1 Politika teknologikoaren esparrua

Garapen teknologikoaren abiadura gero eta handiagoa da, batzuetan esponentziala. Hori dela eta, gizartea behartuta dago etengabe egokitu eta berritzera. Hori sektoresanitarioan, aparatu eta ekipamendu berrien agerpenean ikusten da; baita aurrekoak zaharturik uzten dituzten medikuntza tekniketari (batez ere erabiltzaile-pazienteari ekartzen dioten onuragatik): suspertzeko denbora laburragoa behar duten zauri txikiko interbentzioak, proba erabakigarriagoak eta ez horren mingarriak etab.

Une honetan, eta datozen urteetarako, Osakidetzaren inguru teknologikoa beste plan eta faktore batzuen barruan dago. Alde batetik, Osasun Sailak 2007-2012 aldirako landutako Euskal Sistema Sanitarioaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Planak egin beharreko inbertsioak zehazten ditu, Osakidetzak aurre egin beharreko ekipamendu eta azpiegitura premiei erantzuteko. Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak eta Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Innobasquek, EAE zientzia eta teknologia gune bihurtzeko jarraibideak zehazten dituzte, non Osakidetzak eragile aktiboa izateko konpromisoa duen.

Egoera horren aurrean, Osakidetzak teknologiaren abangoardian egotearen aldeko apustua egin du teknika eta ekipamenduei dagokienez, eta baliabide eguneratuak eta maila handikoak izan nahi ditu, tratamenduen erabakigarritasuna hobetzeko. Apustu horrek, gainera, profesionalentzako Erakundea erakargarriagoa egiten lagunduko du. Alor horretan, jarduera orok asistentzia beharrekin bat egingo du, eta inbertsio teknologikoen errendimendua handituko.

Helburuak

- **TA.1.1 Estrategia Teknologikoa zehaztu eta garatzea**

Osakidetzak ekipamendu erabilgarriaren egoera, baldintzak eta prestazioak aztertuko ditu, eta elementuen eguneratzea planifikatuko da, hala behar duenean. Aldi berean, Osakidetzak irizpide bateratuak ezarri nahi ditu Zerbitzu Erakunde guztietan beharren identifikazioa eta soluzio teknologikoen definizioa sistematizatzeko, efikazia, efizientzia, segurtasun, ebaluazio eta bestelako parametroetan oinarrituta. Estrategia horrek, aldi berean, teknologien behaketa prospektiborako sistema bat sortuko du.

- **TA.1.2 Osakidetzako sarean telemedikuntza eta telediagnostikorako tresnak txertatu eta zabaltzea**

Telemedikuntza eta telediagnostiko tresnek asistentzia prozesua hobetzeko aukera ematen dute, prozesua laburtu egiten baitute. Gainera, Lehen Mailako Atentzioaren eta Atentzio espezializatuaren arteko interakzioa, eta baita diziplina arteko interakzioa ere, optimizatzeko baliagarriak dira. Etorkizun hurbilean, beraz, fakultatiboen arteko erlazioari aplikatuko zaizkio, eta hala, asistentzia jarduera urrunetik egin ahal izango dute, informazioaren eta komunikazioen teknologietan oinarrituz. Erradiologia eta antzeko espezialitateetan aplikatu ahal izango da.

Bigarrenik, eta 2008-2012 aldi estratergikoan zehar, Erakundearen eta Erabiltzaile-Pazientearen arteko erlazioan teknika horiek aplikatzeko aukera aztertuko da.


- **TA.1.3 Goi mailako teknologiarren errendimendu optimora iristea**

Osakidetzaren asmoa da ahalik eta produktibitate handiena lortzea, abangoardiako teknologiek dakartzaten inbertsio handiei errendimendu handia ateratzea bilatuz, eta erakundeko pertsoniei inbertsioen errentagarritasunaz kontzientzia harraraziz.

Inbertsioaren eraginkortasunari eta inbertsioaren erabilerearen produktibitateari buruzko analisiak aukera emango dio Erakundeari abangoardiako teknologiarren erabilera optimizatzeko, eta baita inbertsio teknologikoari buruzko erabakiak optimizatzeko ere, klinikoen eta zuzendarien artean ebaluazioaren kultura zabalduko dela eta.

- **TA.1.4 IKTen bitartez, antolamenduzko berrikuntza sustatzea**

Osakidetzaren asmoa da erakundea eta asistentzia prozesua desburokratizatzea, teknologia berrietan oinarritutako formula berritzaileen bidez. Errezeta elektronikoa, zitazioan laguntzako teknologia erabiltzea eta bestelako ekimen batzuk ere aztertuko dira, Erabiltzaile-Pazientearentzako onura eta tresna berrien kostua kontuan hartuz.



TA.2 Informazio sistemak

Erakundeen barruan IKTen garapen bizkorrak aukera handiak ematen ditu erakundeetako kideen artean informazioa biltegitatu, prozesatu eta zabaltzeko. Aukera berri horiek bereganatu eta aprobetxatzeak hobekuntza handiak dakartzkio Osakidetzari informazioaren gestio, antolamendu eta zabalkundean. Gaur egun, Osakidetzahistoria kliniko bakar eta informatizatuaren lanketan murgilduta dago. Proiektu hori garrantzi handiko mugarria izango da Erakundearentzat, besteak beste, lehen mailako atentzioaren eta atentzio espezializatuaren arteko integrazioa eta koordinazioa lortuko delako. Onurarik handiena Erabiltzaile-Pazienteek igarriko dute, sistema sanitarioan zeharko ibilbidea sinplifikatu egingo baita.

Ildo estrategiko honekin, Osakidetzaren asmoa da ezagutzaren biltegitratzea, gestioa eta zabalkundea hobetzea, ezagutza baita Osakidetzarik nagusietako bat, berrikuntza aktibatuzeko elementu indartsua izateaz gainera. Horretarako, gestioko informazio sistemak, asistentziako informazio sistemak (diziplina artekoa eta Paziente-Erabiltzaileari zuzendutakoa) eta ezagutza gestionatzeko sistemak garatzeko apustua egiten du.

Helburuak

- **TA.2.1 Asistentziako informazio sistemen estaldura osatzea**

Osakidetzak oraingo aldi estrategikoan osatuko du historia kliniko informatizatuaren ezarpen prozesua, lehen mailako atentzioaren eta atentzio espezializatuaren arteko gestio eta koordinazioan horrek dakartzan hobekuntzekin.

- **TA.2.2 Erabakiak hartzeko informazio sistema korporatiboak garatzea**

Osakidetzak informazio sistema korporatiboak garatuko ditu, erakunde barruan ezagutza kodetuaren gestioa indartzeko tresnak baitira. Era berean, informazio sistemak aplikatuko dira erakundearen gestioa bera hobetzeko eta erabakiak hartzea errazteko.

- **TA.2.3 Ezintasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonen eskuragarritasuna bermatzea**

Osakidetzak informazio sistemak eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuko ditu edozein motatako ezintasunak dituzten pertsonen sistema eskuragarri izan dezaten.

TA.3 Asistentzia azpiegiturak

Osakidetzak, gaur egun, badu azpiegitura sare zabal bat hiru Lurralde Historikoetan zehar hedatzen dena eta egungo asistentzia eskaerari erantzuten diona. Dena den, eskuragarritasunari dagokionez, biztanleriaren eskakizunak gero eta zorrotzagoak dira; asistentzia eskaera gero eta aldakorragoa da; etengabeko hobekuntza eta kalitatea ere hor daude, eta gainera, zenbait azpiegitura egokitu eta berritu beharra dago. Hori guztia dela eta, Osakidetzak asistentzia azpiegiturak modernizatu eta egokitzea planteatzen du.

Gai hori Osasun Sailak 2007-2012 aldirako onartutako Euskal Sistema Sanitarioaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Planean zehaztuta dago. Osakidetzak apustua egiten du asistentzia azpiegiturak egokitu eta, era berean, egungo aktiboei eusteko.

Helburuak

- **TA.3.1 Asistentziarako ahalmenak asistentzia sarea berriz eraiki, birmoldatu eta modernizatzeko egokitzea**

Osakidetzaren asmoa da, alde batetik, egun dauden azpiegitura eta ekipamendu batzuk birmoldatu eta modernizatzea, eta bestetik, zentro berriak eraikitzea (33 osasun zentro eta bereizmen handiko 3 zentro, besteak beste). Ondorioz, lehen mailako atentzioko sarea sendotuko da. Gainera, ospitaleaz kanpoko osasun mentala indartuko da, zentroen modernizazioan eta berritzean oinarrituta, beste jarduera batzuen artean. Modernizazio planean aurreikusitakoaren arabera, sistemako ohe kopurua handitu egingo da.

- **TA.3.2 Oinarrizko instalazioen eta azpiegituren mantentzea ziurtatzea**

Eraikin berriez gain, eta aldez aurreko pauso gisan, Osakidetzaren asmoa da egungo instalazioen eta azpiegituren mantentzea bermatzea, zerbitzu sanitarioak emateko baldintzarik onenak egon daitezen.

- **TA.3.3 Ezintasunen bat daukaten pertsonentzako irisgarritasuna bermatzea**

Helburua da, azpiegitura eta ekipamendu kontuei dagokienez, irisgarritasuna bermatzea. Osakidetzak bere eraikinetara iristeko baldintzak nolakoak diren aztertuko du eta, hala egitea komeni dela ikusiz gero, egokitu egingo ditu.

4.6 II: Ikerketa eta Irakaskuntza

Osakidetzak, 2008-2012 aldian, bere ikerketa eredu korporatiboa definituko du O+Iker-ekin (BIOef) koordinazio estuan. Gainera, alor honetan, badira beste helburu estrategiko batzuk, esaterako, ikerketa jardueraren eraginkortasunaren neurketa eta analisia eta erakunde zein enpresekiko itun politika lantzea.

Irakaskuntza jarduerari dagokionez, aldi estrategikoaren ildoak hauek izango dira: Osakidetzako Pertsonen egindako lana aitortzea eta dagoeneko kanpotik aitortua izan den jarduera indartzea.

Ildo estrategikoak

II.1 Ikerketa

II.2 Pertsonen irakaskuntza jarduera



II.1 Ikerketa

Euskadiko Autonomia Erkidegoak ikerketa sare trinkoa osatua dauka, Autonomia Estatutuan biltzen den ikerketa eskumena oraindik transferitu gabe badago ere. Sarehorretan, non erakunde eta unibertsitateen arteko eragin-trukea dagoen, biozientziak eta biomedikuntza etengabe garatzen ari diren alorrak dira. Bestalde, Osakidetzak baditu gaur egun maila handiko taldeak, O+Iker-en (BIOef) koordinazio eta bultzada pean prestigio ezagutuko ikerketa lantzen dihardutenak.

Osakidetzak erreferentziatzko ikerketa eragile izan nahi du EAEn sanitatearen eta biozientzien alorrean, eta horretarako, tokiko, nazio eta nazioarteko hainbat programa eta planetan lankidetzan dihardu¹.

Asistentzia jardueran aplikagarri diren emaitzez gainera, kalitateko ikerketa jarduerak prestigioa ematen dio Osakidetzari eta hori erakargarria da Pertsonentzat. Ikerketaren bidez sortutako eta erakunde osoan zabalduko ezagutzak berrikuntza prozesuei laguntzen die Erakundearen.

Helburuak

- **II.1.1 Ikerketa eredu korporatiboa zehaztea eta Erakundearen ikerketa egitura sendotzea**

Jarduera horri bidea egin eta jarduera bera sustatzeko esparrua ezarriko da, arrakastatsu izateko mekanismoak bilduko dituenak: ikerketa institutu eta unitateak sustatu (Gurutzetakoa eta Donostiakoak, esaterako), pertsonak, dedikazioak, espazioak eta bitartekoak eskuratuz; ADN bankuak garatu; goi mailako adituen batzorde bat sortzearen komenigarritasuna aztertu etab. Halaber, graduatu osteko pertsonak jarduera horietan inplikatuko dira, haien prestakuntzaren aberasgarri.

Erakundearen berrikuntza ardatz hartuta, Osakidetzako zientifiko adituen belaunaldi ordezkatzeari eta ikerketa prozesuaren etorkizuneko bideragarritasuna sustatzeko helburuaz, eta baita Erakundearen eraginkortasuna hobetuko duten patente eta I+G kontratuak sustatzeko helburuaz

¹I+Gko Europako Esparru Programen 1. lehentasuna (Osasuna lehenetsi). Espainiako Estatuko I+G+b Nazio Planeko Biomedikuntzako Ekimen Sektoriala. Autonomia Presidenteen III. Konferentzia, 2007ko urtarrila. 2010 BIOBASK Estrategia eta Eusko Jaurlaritzaren 2010erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana.

ere, Erakundeak meritua baloratu, aitortu eta modu egokian sarituko duten neurriak aztertu eta aplikatuko ditu.

O+Iker-ekin lankidetzan gauzatutako eredu korporatibo horrek aukera emango du, era berean, finantzaketa iturri berriak identifikatzeko eta bultzatzeko, enpresa eta erakundeekin hitzarmenak adostuz.

- **II.1.2 Saiakuntza klinikoei lotutako ikerketa jarduera sustatzea**, Herri Administrazioak edo elkarte zientifikoek diruz lagundutako sendagai eta produktu sanitarioekin, edo farmazia industriak nahiz inguruko enpresek kontratatutakoekin. Ildo horretan, farmazia eta teknologia industriekin itunak egingo dira.

Helburu horrekin, Erakundeak O+Iker-en laguntza izango du ikerketa jardueraren garapena gainerako asistentzia eta irakaskuntza jarduerekin harmonian planifikatzeko; ikerketaren tipologia pazientearentzako onuraren arabera lehenesteko; jarduera horri, gauzaperen eta eraginkortasunaren kalitatea bermatuz, baliabideak esleitzeko; eta prozesua gestionatzeko sistema egoki bat izateko.

- **II.1.3 Ikerketaren eraginkortasuna aztertu eta optimizatzea**

Autofinantzatua barik, Kanpo finantzaketa izan duen ikerketa lehenetsiko da, zeren eta bigarrenaren helburuak bat etorri behar baitira ezinbestean laguntzak jasotzeko deialdia egin duten Herri Administrazioenekin, kalitate zientifikoa kanpotik ebaluatzen baita, finantzaketa eskatzaile onenekin lehian lortzen baita, gestioa euskal sistema sanitarioaren Fundazioak egiten baitu eta emaitza ekonomikoak erregulartasunez ikuskatzen baitira.

Diru laguntzen eta ikerketa kontratuen lorpenean izandako arrakasta aztertzeko, eremu zientifiko eta zerbitzu erakundeetarako I+Garen kostu-eraginkortasunari buruzko azterketak hartuko dira aintzat.

Ikerketa mota horren produktibitate zientifikoa, eta baita Osakidetzako baliabideekin autofinantzatutakoa ere, O+Iker-ekiko lankidetzaren bidez ebaluatuko da, jarraipen bibliometrikoari esker, patenteei eta emaitzak ustiatzeko jarduerari esker, gida, software eta gestio prozedura

berrien ekoizpenari esker, eta gaixotasunen gaineko jarduera diagnostiko-terapeutiko edo prebentiboari esker.

- **II.1.4 Erakunde eta enpresekiko itunak sustatzea (jarduera eta finantzaketa)**

Osakidetzak erakunde publiko eta enpresa pribatuekin lankidetzaz hitzarmen eta akordioak egitea bultzatuko du, ikerketa jarduera sustatu eta finantzatzeko (O+Iker-ekin koordinatuta). Proiektuak lantzeko esparru horiek aukera ezin hobeak eskaintzen dituzte sinergiarako eta denon onurarako, kaudimen ekarpen nabarmenaz gainera.

- **II.1.5 Ikerketa jarduera ikerketa sareetan integratzen laguntzea**, alor horretan Osakidetzaren jarduera garai berrietara egokituz, kontuan izanik globalizazioa aukera ona bat izan daitekeela baldin eta aukerak zuzen lantzen eta aprobeztatzen badira. Erakundea, onuragarri izan daitezkeen nazioarteko sare guztietan egongo da eta, aldi berean, Osakidetzan bertan sarean jardutea bultzatuko da.



II.2 Pertsonen irakaskuntza jarduera

Osakidetzako Pertsonak eskaintzen duten irakaskuntza jarduera Erakunde barruan eta kanpoan dago aitortua; hori dela eta, maila horri eustea, bere horretan, erronka bat da. Dena den, alor sanitarioan aurrerapena ezinago bizia da eta profesional sanitarioak gero eta gehiago espezializatzen dira.

Osakidetzako Pertsonak eskaintzen duten irakaskuntza jardueraren izateko azken arrazoia, berez, pertsonarik onenak, profesionalik onenak edukitzea da. Horregatik, Osakidetzak irakaskuntza jarduera indartzearen aldeko apustua egin du, batez ere pertsona egoiliarrei dagokienez (Barruko Mediku Egoiliarrek, Barneko Erizain Egoiliarrek, Barneko Psikologo Egoiliarrek, etab.). Gainera, Osakidetzako irakaskuntza profesional berriak erakartzeko beste elementu bat da.

Bestalde, Osakidetzan, irakaskuntza ezagutzaren sorkuntza edo xurgapenaren bidez ere lantzen da, gero Erakundearen zabaltzeko: Osakidetzako Pertsonen ezagutza partekatuan eragina izango duten prestakuntzari lotutako biltzar eta ekitaldietara joatea.

Osakidetzak elementu transmititzailerat jotzen du irakaskuntza; ez bakarrik ezagutzak transmititzeko, baita pertsonak Erakundearekin lerrotatuko dituen balioak transmititzeko ere. Osakidetzaren ezagutzaren erakunde den aldetik, garrantzi handikoa da profesionalen irakaskuntzan parte hartzea, izan ere, hori garapen profesionalerako, ezagutza sortzeko eta Zerbitzu Erakundeak aberasteko faktorea baita.

Helburuak

- **II.2.1 EAEn, egoiliarren (Barruko Mediku Egoiliarrek, Barneko Erizain Egoiliarrek, Barneko Psikologo Egoiliarrek eta beste batzuk) prestakuntza eskaintza hobetzea**, Osakidetzako Pertsonak inplikaturik, irakaskuntza programak berrikusiz, behar diren baliabideak eskuratuz eta pertsona egoiliarrek jardueretan integraturik (asistentzia, laguntza eta ikerketa jardueretan...), eta bertako irakaskuntza jarduera dela-eta profesional berrientzako Osakidetzaren erakargarriagoa eginez.
- **II.2.2 Irakaskuntza jarduera**, bai graduatu osteko prestakuntzako egoiliarrei eskainitakoa, bai gestio zereginetan zein hartutako ezagutzaren zabalkundearen Osakidetzako beste Pertsona batzuekin partekatutakoa, zentzu globalean aitortzea.
- **II.2.3 Erizaintza Eskolako irakaskuntza ahalmena handitzea**, 2008-2012 Plan Estrategiko honetan aipatutako pertsonak erakartzeko.

Jarraipen eta Kontrol adierazleak



Adierazlea	Helburua 2012
Aztertutako eta hobetutako prozesu/prozeduren eta oinarriko izapideen kopurua	20 ²
Arratsaldeko atentzio arruntean (20:00etara arte) dauden lehen mailako atentzioko unitateen %	%80
Fakultatiboak eskatutako aldian asistentziarik jasotzen ez duten Erabiltzaile-Paziente atzeraezinen %	≤%5
Langile sanitarioengandik jasotako informazioa dela-eta, pertzepzio positiboaren maila (gogobeteta daudenen %)	≥%90
Ebatzi gabeko bigarren iritzi eskaeren murrizketa 2008arekiko	≥%20
Pazienteen eta familiartekoen gogobetetzea jasotako tratuari dagokionez (gogobeteta daudenen %)	≥%93
Zerbitzu Erakundeetan Euskarari ematen zaion erabilerarekin gogobeteta dauden Erabiltzaile-Pazienteen %	≥%55
Barne komunikazioa dela-eta Pertsonen pertzepzio positiboaren maila (1-5)	≥4
Laneko bizitzaren eta bizitza pribatuaren arteko uztarketa dela-eta Pertsonen pertzepzio positiboaren maila (1-5)	≥3
Urtean prestakuntza jasotzen duten pertsonen %	%70
Garapen profesionalerako sistema ezarria duten Osakidetzako pertsonen (kolektiboak) %	%100
Langileak biltzeko jardueren urteko kopurua (Lan Eskaintza Publikoa, Lekualdatzeko Lehiaketa...)	≥1
Urtean atentzioko prozesu integral bat garatzeko proba pilotua arrakastaz ezartzen duten Zerbitzu Erakundeen kopurua	≥2

² 2008-2012an metatutako balioa


Adierazlea	Helburua 2012
Egingarritzat jotakoen artean ezarritako bereizmen handiko prozesuen % (urteko hazkundea)	≥%5
Infekzio kirurgikoaren intzidentzia	INOZen arabera
Urrezko Q-a edo hortik gorakoren bat eskuratu duten Zerbitzu Erakundeen kopurua ³	11
Berrikuntza Eredua ezarria daukaten Zerbitzu Erakundeen %	%80
Kontabilitate analitikoaren eredia ikuskatua daukaten zerbitzu erakundeen %	%95
Elkarte zientifiko, unibertsitate, teknologia Zentro eta hornitzaileekin lankidetzan aritzeko kontaktu/akordio formal bat baino gehiago daukaten erakundeen %	%100
Ingurumenari lotutako ziurtapenak dituzten Zerbitzu Erakundeen %	%70
Historia kliniko integratua eta Lehen Mailako Atentzioa-Atentzio Espezializatua ezarria duten Zerbitzu Erakundeen %	%100
“Euskal Sistema Sanitarioaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Planaren” gogobetetze maila	%100
Ikerketa unitateak dituzten zerbitzu erakundeen kopurua	≥11
Erakunde publiko eta enpresa pribatuekin lankidetzan aritzeko itun, hitzarmen edo esparru akordioen kopurua	20
Barruko Mediku Egoiliarrentzat eskainitako eta bete gabeko lanpostuen kopurua	≤1

³ 2008-2012 aldian metatutako balioa

I. eranskina. Lege Esparrua



Osakidetzaren erregimen juridikoa eta jarduera ezartzen duten lege, dekretu eta aginduen onarpe



Iturria: Idom Kontsultoretza

Osakidetzaren Eraketa, Izaera eta Antolamendu Esparruaren Arautegia

Abenduaren 18an, **3/1979 [1] Lege Organikoak** Euskadiko Autonomia Estatutua onartu zuen eta 18. artikuluan zera dio: “Barneko sanitate gaitan, Euskadiri dagokio lege garapena eta Estatuko oinarritzko legeria betearaztea”.

Urte gutxi batzuk geroago, Eusko Jaurlaritzaren I Legealdian, Eusko Legebiltzarrean maiatzaren 19ko **10/1983 [2] Legea** onartu zen, eta horren bidez Osakidetza eratu zen, izaera publikoko zerbitzu sanitarioak, eta EAEko osasun zerbitzuen programazioa eta kontrola gestionatzeko helburuz.

1986an, Gorte Nagusiek **14/1986 Sanitate Lege Orokorra [3]** onartu zuten nazio mailan. Lege horrek bi eskakizuni erantzuten dio: lehena, hiritar guztiei eta Estatuan bizi diren atzerritar guztiei Sistema Sanitarioaren zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea aitortzea. Bigarrena, Autonomia Erkidegoetako zerbitzu sanitarioak instituzionalizatzea, kontuan izanik Erkidego horiek Osasun gaitako eskumenak jaso dituztela euren Estatutuetan.

Gerora, Osakidetzako Lehen Mailako Atentzioaren eta Atentzio Espezializatuaren antolaketa egiturak zehaztu ziren **195/1996 [7] eta 194/1996 [8] Dekretuen** bidez, hurrenez hurren.

1997an, Eusko Legebiltzarrak **Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legea [9]** onartu zuen. Lege horrek plangintzaren eta finantzaketaren, Osasun Sailaren eskumenen eta zerbitzu sanitarioen hornikuntzaren bereizketa funtzionala, Osakidetzaren eskumen gisan geratzen dena, artikulatzen du. Osakidetzaren Estatutu Sozialak azaroaren 11n ezarri ziren **255/1997 Dekretuaren [11]** bidez, eta horrekin Antolamendu Sanitarioaren Legea garatzeko lehen xedapena eman zen, zeina Erakundearen politika sanitarioko postulatuak islatzeko adierazpen inportantea izan baitzen.

Abuztuaren 31ko **319/1999 [12] dekretuarekin**, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseilua sortu zen eta prestakuntza mota hori kreditatzeko sistema bat arautu zen, prestakuntza beharrei modu arinean erantzuteko, etengabeko aurrerapen zientifiko eta teknikoan murgilduta dagoen ingurune batean.


Otsailaren 13an, **29/2001 [14] Dekretuaren** bidez, transfusioetarako eta giza ehunen horniketarako Euskal Autonomia Erkidegoko sarea sortu zen, behar hemodinamikoaren estaldura handitzeko, **12/1989 [5] Dekretuan** egituratutako egiturak berrantolatuz eta modernizatuz. **12/1989 [5] Dekretuak** EAEko Odol eta Hemoderibatu Bankuetarako antolamendua ezarri zuen.

Ekainaren 16ko **7/2001 [15] Dekretuarekin**, Osasun Sailaren egitura ezarri zen, **8/1997 [9] Legeak** Euskadiko Sistema Sanitarioarentzako ezarritako antolamendu esparrua sendotzeko.

2003ko maiatzaren 28an, Gorte Nagusiek **16/2003 [19] Legea** onartu zuten, **Osasun Sistema Nazionalaren kalitateari eta kohesioari buruzkoa**. Lege horren bidez, Herri Administrazio publikoaren koordinazio eta lankidetzaren jardueretarako lege esparrua ezarri zen Osasun Sistema Nazionalan.

Martxoaren 11ko **59/2003 [17] Dekretuak**, Osasun Barrutiak finkatu zituen, eta antolaketa eta egituraketa EAEko lurraldeko egoera sozio-sanitarioaren arabera ezarri ziren.

Osasun arloan izaten ari diren etengabeko aurrerapen zientifiko-teknikoek asistentzia sanitarioan teknika edo prozedura berriak sartu izana ekarri dute. **2004ko azaroaren 12ko Aginduari [23]** esker-Osasun sailburuak emana-, Euskadiko Sistema Sanitarioaren asistentzi praktikan, teknologia sanitarioen txertaketa alde aurreko ebaluazio prozedura sanitario baten pean jartzeko beharra ezarri zen.



Biomedikuntza ikerketa eta osasun zientzietako ikerketa giltzarri dira hiritarren bizi kalitatea eta bizi itxaropena hobetzeko eta haien ongizatea handitzeko, izan ere, horri dagokionez funtsezko aldaketa izan da azken urteotan. **14/2007 [33] Biomedikuntza Ikerketaren Legearen** onarpenarekin, biomedikuntza ikerkuntza bultzatzeko oinarri juridikoak ezarri ziren, eta estaldura juridikoa eman zitzaizen aurrerapen berriei eta garapena sustatzeko esparrua ezarri zen.

Otsailaren 6ko **223/2004 [22]** Errege Dekretua argitaratu zenean, sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak arautu ziren eta aurreko arautegia eguneratu zen, harmonizaziorako arautegi europarrari jarraituz.

Osakidetzako Pertsonen Alorreko Arautegia

Azaroaren 21ean, **231/2000 [13] Dekretuaren** bidez, Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzeko Akordioa onartu zen. Ordura arte, baldintzok **304/1987 [4] Dekretuan** xedaturiko Administrazio publikoetako lan baldintzetan zehaztuta zeuden.

Martxoaren 18ko **67/2003 [18]** Dekretua, euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko da eta Osakidetzeta-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana arautzeko oinarriak ezartzen ditu. Plana Euskal Administrazioan euskara normalizatzeko prozesu orokorrean kokatuta dago.

Osasun arloko lanbideak antolatzeko **44/2003 [20]** Legea Gorte Nagusietan onartu zen azaroaren 21ean. Lege horrek lanbide sanitario titulatuen oinarriko alderdiak arautzen ditu, norberaren nahiz inoren konturako lanari dagokionez, profesionalen prestakuntzaren egitura orokorrari dagokionez, profesionalon garapen profesionalari dagokionez, eta lanbide sanitarioen plangintzan eta antolamenduan duten parte hartzeari dagokionez. Era berean, hiritarren eskubideak gauzatzea ahalbidetuko duten profesionalen erregistroak ezartzen ditu, zerbitzu sanitarioei eta osasun sistemaren giza baliabideen plangintza egokiari dagokienez.

Abenduaren 16an **55/2003 [21]** Legea onartu zen, osasun zerbitzuetako estatutupeko langileen Esparru Estatutukoa. Lege horren xedea da estatutupeko langileen erregimen juridikoa eguneratu eta egokitzea, Autonomia Estatutu ereduari dagokionez eta asistentzia sanitarioaren kontzeptuari eta norainokoari dagokienez, horrekin langile horien oinarriko arauak ezartzeko, esparru estatutaren onarpenaren bidez.

Martxoaren 15ean onartutako **57/2005 [26] dekretuaren** bidez, Osakidetzako pertsonen lan baldintzak arautzeko Akordioa onartu zen, eta hala, besteak beste, erakundeetan lan finkorik ez zuten pertsonak lanean hasteko zerrenda sistema arautu beharrari erantzuteko.

Uztailaren 19ko **186/2005 [27] Dekretuaren** bidez, Osakidetzako Lanpostu Funtzionalak arautzen dira eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/1997 Legearen aldean berrikuntzak dakartza, egiturari eta antolamenduari dagokienez. Gainera, printzipio berri batzuk sartu dira, batetik, aitorten profesionala indartzeko, eta bestetik, kultura klinikoa eta gestioaren kultura hurbiltzeko.

Giza baliabideen garapenak funtsezko garrantzi estrategikoa du, eta hori agerikoa zen aurreko Plan Estrategikoaren (2003-2007) funtsezko printzipioei eta oinarrizko ildoetara errepikatuz gero. Horri erantzuteko, azaroaren 22ko **395/2005 [28] Dekretua** onartu zen. Dekretu horren bidez, A1 taldeko (medikuntza fakultatiboa eta teknikoa) profesionalen garapen profesionala arautu zen.

Erabiltzaile-Pazientearen Alorreko Arautegia

2002ko azaroaren 14ko **41/2002 [16] Legean**, batetik, Pazientearen Autonomia eta, bestetik, Informazioaren eta Dokumentazioaren arloan dituen Eskubide eta Betebeharrak arautzen dira eta, hala, Sanitateko **14/1986 [3] Lege Orokorrak** printzipio gisan azaldutakoak osatzen dira, pazientearen autonomia eskubidea indartuz, eta bereziki aipatuz pazienteak adostasun informatuaren esparruan aurretiaz agindutako nahien gaineko arauketa. Halaber, Legeak sakonki aztertzen du asistentzia zentroetan sortutako dokumentazio klinikoarekin zerikusirik duen oro, bereziki azpimarratuz aspektu horretan Erabiltzaileen eskubideak kontuan hartuko direla eta gauzatu egingo direla. Gerora, Eusko Legebiltzarrak **270/2003 Dekretua** onartu zuen 2003ko azaroaren 4an. Dekretu horren bidez, Aldez Aurretik Adierazitako Borondateen Euskal Erregistroa arautu zen.

Azaroaren 26ko **30/1992 [6] Legearen bidez**, Herri Administrazioen eta hiritarren arteko komunikazioak erraztu eta sututzen dituen erregistroa eratu zen, bitarteko telematikoen bidez egindako jakinarazpenak arautzeko erregimen juridikoari behar duen estaldura emanez. Dena den, azaroaren 12ko **ITC/3928/2004 [24] Agindua** eman arte ez zen erregistro telematiko bat eratu Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioan. Erregistro horrek aukera ematen du telematika bidez eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak aurkezteko.

2005eko otsailaren 18an **4/2005 [25] Legea** onartu zen, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako. Lege horrek pertsonen eta taldeen berdintasuna bultzatzeko baldintzak sustatu eta oztopoak ezabatzen ditu, berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin. Osakidetza, ekitatea bermatzen duen aldetik, euskal administrazio publikoen interbentzio Legean adierazitako oinarriko ildoak biltzen ditu, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna, bizitzako arlo guztietan, sustatzeari dagokionez.

Uztailaren 26ko **29/2006 [29] Legea**, sendagaien eta produktu sanitarioen erabilera arrazionala bermatzen duena. Lege horrek ziurtatzen du hiritar guztiek eskuragarri izatea behar duten sendagaia, behar duten unean eta lekuan, eraginkortasun eta segurtasun baldintzetan, Osasun Sistema Nazional barruan sendagaien erabilera arrazionala sustatuz.

Irailaren 15eko **1030/2006 [30] Errege Dekretuak** Osasun Sistema Nazionaleko ohiko zerbitzuen zorroa eta berau eguneratzeko prozesura ezarri zuen, ekitatea eta Osasun Sistema Nazionalean atentzio sanitario egokia eskuragarri izatea bermatzeko.

Martxoaren 21eko **65/2006 [31] Dekretua**, prozedura kirurgiko programatuetara eta urgenteak ez direnetara iristeko gehienezko epeak ezartzen dituena. Dekretu horren helburua da erabiltzaile/pazienteari erantzun kirurgikoa izateko gehienezko epe batzuk bermatzea, prozedura kirurgikoen tipologia zein den, aldakorrak izango direnak. Epeak betetzen ez badira, Administrazio Sanitarioak beste bitarteko sanitario batzuetara jo ahal izango du, tratamendua ez dadin atzeratu.

EAEan badago, zalantza baten aurrean, bigarren iritzi bat eskatzeko, osasunarentzat edo bizitzarentzat arriskutsuak izan litezkeen tratamendu terapeutikoekin, interbentzio kirurgikoekin edo asistentzia prozedurekin hasi aurretik, indarreko legearen bitartez eta arautegia ezartzen duen **149/2007 [32] dekretuaren** onarpenarekin.

